
### Bere idazlanak

5. **Bizkaiko euskal idazleak.** Bizkaierazko Literaturaren kondaira antzera. 1580-1968.
Derioko Seminario Ikastetxea, Bilbao, 1970. 306 orr.

6. **Haurgintza minetan.** ETOR, San Sebastián 1973. 180 orr. (1972 «Txomin Agirre» Saria).
7. **Ipuin antzeko alegi mingotsak.** Leopoldo Zugaza, Editor. Durango, 1975. 182 orr. (1975 «Resurrección M.ª de Azkue» lehenengo Saria).
8. **Ipuin antzeko alegi mingotsak.** (2. edizioa). Caja de Ahorros Municipal de Bilbao, 1977. 178 orr.
9. **Ipui antzeko.** GERO, Ediciones Mensajero. Bilbao, 1975. 118 orr.
10. **Euskal deklinabidea.** (Bizkaieratik Baturantz). Udako Euskal Ikastaroa 1. Leopoldo Zugaza, Editor. Durango, 1975. 146 orr.
11 **Influencias del vascuence en la lengua castellana.** (A través de un estudio del elemento vasco en el habla coloquial del Chorierri — Gran Bilbao). La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1976. 192 orr.
12. **Euskal Literatura. Azterbideak, azterketak, aztergaiak.** Udako Euskal Ikastaroa 2. Leopoldo Zugaza, Editor. Durango 1977. 153 orr.
13. **Higidura berdez,** Olerkiak. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. San Sebastián, 1977. 108 orr. (1976 «Ciudad de Irún» Literatur Saria).
14. **Euskal Literatura II. Azterbideak, Azterketak, aztergaiak.** Udako Euskal Ikastaroa 4. Leopoldo Zugaza, Editor. Durango, 1978, 134 orr.
15. **Euskal ortografia.** (Baturantz). Leopoldo Zugaza, Editor, Durango, 1978. 128 orr.
16. **Bizipenen bultzadaz.** (Olerkiak). Irrisko Xorta. Leopoldo Zugaza, Editor. Durango 1978. 71 orr.
17. **Utopiaren fantasian.** Kriselu. L. Haranburu Editorea. Donostia, 1979. 88 orr.

## Argitaratu gabe

**Bilbo irribarrez.** 55 ipuin labur.

**Hizunigu** — Nobela laburra.

**Etorriaren zorabioz** — Olerkiak. Bizkaiko Aurrezki Kutxak antolatutako «Felipe Arrese-Beitia» sariaren irabazle, Polikarpo Iraizozekin batera.

# Mikel Zarateren literaturgintza

**Jon Kortazar**

Estudio honetan, Mikel Zaratek literatura mailan egin zuena aztertu nahi dugu. Beraz, hauxe da gure gogoa azken batean: Mikel Zarateren literaturaren ikuspegi orokor bat ematea.

Ikuspegia, lan orokorra izango da. Beharbada, froga faltaz geratuko da lana, baina badago horretarako arrazoirik: lanaren zabala orriz mugatua da, eta laburpen bat egitera behartuak aurkitu gara. Frogak, beste batez argitaratuko ditugu, agian.

Planteamentu orokor horrek, lana momentu askotan hipotesi mailan geratzera behartu du. Hipotesi horiek ez dira askotan definitiboak izango. Gure erreflexio moduan eskaintzen ditugu. Beharbada ez dira oso frogatuak agertuko, baina eritzi zentzudun gisan doaz. Saio dokumentatuagoak supera dezatela laster lan hau.

## I. NARRATIBA *

### 0. Metodologia

Mikel Zarateren prosa liburu biak nahiko ez-

---

* Saio hau liburu bitan oinarritua dago: *Haurgintza minetan,* Etor, Donostia, 1972, Txomin Agirre saria jasotako liburua, eta *Ipuin antzeko alegi mingotsak,* Leopoldo Zugaza, Durango, 1977. Badira, nik dakidala, beste bi argitara gabeak: *Bilbo irriparrez* eta *Hizunigu.* Inizialen bidez aipatuko ditugu: HM, IAAM.

berdinak dira, Horregatik, klabe batzu ikusi ondoren, liburu biak banandurik aztertuko ditugu. Lehenengo, ardatz nagusitzat kontsideratzen ditugun karakteristikak. Gero, haren lehen nobela, *Haurgintza minetan,* aztertuko dugu, metodo estrukturalista jarraituz, nobelak batasun bat agertzen bait du.

Bigarren liburuak, berriz, ez du batasunik: alegi sorta bat dugu. Ipuinok, beren hasiera eta amaiera dituzte, eta ez du batak bestearekin, argumentu ikuspuntutik, zer ikusirik. Estruktura honek, beste metodologia bat erabiltzera bultza gaitu. Berriro, ardatz nagusien bitartez Mikel Zarateren narratibaren definizio baterantz joko dugu. Ardatz nagusiok, irakurri osteko erreflexio legez agertuko dira, datu bagerik beharbada, orokortasun batera jo nahian.

## 1. Narratibaren ardatz nagusiak

### 1.1. Euskararen sintesi bat

Asko larritu zuen Mikel euskararen problematika osoak. Arlo honetan ez da ahaztu behar bizkaiera batuan trauma bagerik murgiltzeko egin zituela bere ahaleginak. Kontestu honetan ikusi behar da, haren obran euskarak gai legez duen garrantzia.

Bestalde, Mikelen lan estilistikoa, narratiba behintzat, helburu bati uztartuta joan da: euskara oso eta standard bat egiteko helburuari lotua.

Mikel Zarateren prosa, berak «euskara baturantz» deitzen zuen hizkeraz idatzia dago, eta haren *Ipuin antzeko*-k bertsio bi ditu: bizkaierazkoa eta batuazkoa.

Ez zuen «euskara baturantz» hori definitu; azken batean, bizkaieratik batura abiatzeko bide bat zen. Zer den definitu eta zehaztu ez arren ere, badaude 'baturantz' horren ezaugarri diren elementu batzu:

1) Herriak aditu dezakeen hizkuntza erabiltzea. Honetarako, hauek ziren bideak:
   a) Herriko esaerak erabili. Eta 'herri' hitzaren zentzu geografikoa markatu gabe: Txorierriko esaerak batez ere, baina Euskal Herri osoak ulertu ditzakeen esaerak.
   b) Herritik hartutako jazoerak batu. Jazoerarekin batera, hizkuntza erabiltzen oso espeziala zen joera bat jasotzen zuen. Froga moduan, *H.M.* liburuko pertso-

naiok aipa daitezke: Eskolastika eta Simon Berritsu: hizkeraren bitartez deskribatzen diren pertsonaia bi.

2) Maila desberdinetako hiztegia erabiliz.

a) Mikel Zaratek ez du aranismoak erabiltzeko lotsarik, baina aranismoan ere selekzioa egiten du: 'herriak' aditu ditzakeen hitzak baino ez bait ditu hartzen.

b) Herri hizkera: berriz azpimarkatu behar dugu hau; *H.M.* nobelan hainbat herri kantu, kontu eta esaera jaso dira. Berez testoa errez ulertzeko funtzioa du hizkera mota honek, baina aparteko bizitasuna ere ematen dio. Beste leku batetan (*Idatz eta Mintz*), herri hizkerak euskararen heriotz ordua markatzen du.

d) Geografiaz oso zabalduak diren hitz batzu erabiltzen ditu Mikelek, baina, bada-ezpada, Axularen jokoa ere erabili du inoiz: sinonimoen jokoa, leku guztietan aditua izateko. Joera hau oso nabarmena da lehen nobelan: *H.M.*n.

e) Euskara sasi-aberatsaren maila. Maila honetan Mikelek euskal sasi-aberastasuna agertu agertzen du, baina kritikatzeko. Maila berezi hau *H.M.*n egiten den hitz sinonimoen sariketa barregarrian ikus daiteke, euskararen «1, 2, 3» tragikoan.

f) Sorgin hizkera: Euskal sorginek erabiltzen zuten hizkeraren bi exenplu dauzkagu: *H.M.,* 31: sorginak euskaraz erabilia eta nobela zehar don Trifonen zerbitzariak erdaraz egina.

g) Hizkera ilogikoa, jadanik hots, sigla edo hitz-hots bihurtzen den hizkera apurtua. Nahiko 'kultoa' da jokoa eta ez da behin baino erabiltzen: 'Iñauteri' (IAAM: 157-168).

h) Badago beste maila oso garrantzitsu bat: Euskara «berria» deituko nukeen euskararen maila berezia. Ez dut uste, dena dela, izenlagun hori onena denik. Zera esan nahi dut: hitz jokoen bitartez edo, hitz «berri» antzeko erabiltzen dituela: «aberelkarte», «erpatitz» (eskutitz) «katuila» (IAAM: 52). Hitzok pertsonaien ikuspegia hartzen laguntzen digute. Jokoa, oso literarioa dugu eta ikuspuntu berezia (abereena, kasu honetan) lortzeko jarriak dira.

Bigarren erabilera bat ere ezin ahantz dezakegu: euskara erdararekin baturik sortzen dituen anuntzio ba-

rregarriak (*H.M.* LI, 12). Joko honen funtzioa humorea sortzea da. Erabilera bi, helburu ezberdin birekin.

**1.2. Mundu osoa**

Hizkuntzaren espresibitate «osoa» bilatu (eta 'osoa' komatxo artean jarririk), azken batean mundu oso bat adierazi nahi delako bilatzen da. Asmoak handiegia dirudi, baina hona hemen Mikelen bigarren ardatz nagusia.

Afirmazio hori (mundu oso bat adieraztea) matizatu beharra dagoke. Mikelen prosa liburu bietan, Euskadiko egoera osoa ukitu nahi da. Argiago dago hori lehen nobelan.

Euskadiko borroka (txifa/herritar), zahar eta gaztean arteko borroka Euskadin, Euskadiko folklorismoa (hitz sinonimoen sariketa), euskara dela eta sortu diren borrokak (Amaiaren ametsa), euskal gizonen ebasio guztiak (futbola, sasi-mezak, orjiak, sasi-jakinduria intelektuala)...

Baina, azkenean, jakina, ez da mundu osoa agertzen nobelan, ezpada errealitate estilizatua, osotik elementu batzu hartuz osoaren iruditzat.

Honetan datza, estilizazioaren eskakizunetan, prosa liburu bien arteko ezberdintasunik argiena. Estilizazioa lortzeko, leku askotako era desberdinetako eszena asko behar izan dira. Eszenok hari mehe batez loturik agertzen dira lehen liburuan. Kontalaria ekintza guztien testigu dugu, eta, leku denetan egon ahal izateko, izaera berezia aurkitu du idazleak: iratxoa, mitoen munduko izaera sinesgaitza. Honela, leku guztietan egongo da kontalaria, baina sineskortasunean galdu egin du nobelak [1].

Bigarren liburuak ez du batasunik, eszenak solteak dira, ipuin laburren xorta da; batasuna falta zaio, baina ez zuen beharrezkoa; eta batasunaren arazoa, estruktura aldetik (alegi estruktura hartuz) ahaztuz irabazi egin du eszena bakoitzaren indar sinbolikoak, konnotatiboak.

Mundu osoa adierazteko ahaleginek utzi dute forma mailan aztarnarik. Lehen aztarna euskararen maila ezberdinak ziren; bigarrena akumulazioranzko joera: gaitzizenen akumulazioa (HM, 39), esaeraren pilaketa (HM 14, 15), hitzaldien pilaketa (HM, 35-107), hitzena, sinonimoen sariketan, hitz hotsena (HM 70), eta bereziki pertsonaien pilaketa. *HM* nobelan pertsonaia asko agertzen dira, batzutan izen zerrenda bihurturik (HM,39). Mundu osoaren ikuspegia lortzeko, derrigorrezkoa da pertsonaia askoz baliatzea.

### 1.3. Sinboloak

Argi-argi agertzen zaigu sinboloaren erabilera Mikelen lanetan. Era askotakoak dira sinboloak, eta hemen ez dugu tokirik, astiro-astiro, sakonki aztertzeko: interesgarria litzateke, dena dela, erabilten diren elementuen (abere, tresna, arrain, leku) ikerketa. Hemen sinbolo horien funtzioak, helburuak ikusiko ditugu.

a) Esanahiarekin zerikusia duen helburua. Esanahi hori, askotan politikoa da: azken batean, Euskal Herriak zerabilen borrokaren, sufritzen ari garenaren adierazle bait dira: Poliziarena, diktadurarena, Espainia bera adierazteko badira zenbait sinbolo («txifa txakurrak fatxi», «Zezen larru», «auto mardul»). Horrela hau lortzen da: agerian ezin esan zena, ezkutuan, sinboloen bitartez, adieraztea.

b) Helburu estilistikoa ere lortzen du horrela; azken batean lanaren konnotazioa zabaldu egiten bait da sinboloen bitartez. Baina badago bigarren helburu bat, irakurlearekin zer ikusia duena: gauzak ezkutuan esateak, irakurle aktiboa eskatezn du, lanaren esanahiaz itauntzen duen irakurlea, eta, azkenik, sinboloen esangura argitara ateratzeko, bere aldetik zerbait ipinten duen irakurlea.

c) Helburu teknikoa. Batez ere IAAM ipuinetan agertzen zaigu hau. Alegiak idaztean hasterakoan, alegi teknikak osoosoan hartu ditu Mikelek generoaren ardatzetan ezer aldatu gabe teknika aldetik. Horrela, pertsonifikazio (abereei giza antza ematea) teknika erabiltzen du. Baina pertsonifikazio horiek sinbolo bihurtu ditu; eta ez horiek bakarrik: gaurko elementuak ere (kotxe, tren, ontzi) pertsonifikatu eta sinbolo bihurtu ditu.

d) Helburu mozorratzailea. «Ihauteri» (IAAM 157-168) oso inportantea dugu honetan: Hau hipotesia baino ez da, baina badago ipuin horretan esaldi garrantzitsu bat: «Mozorroturik, gezur itxuratan... agertzen gara egiazkoenik» (163). Edo beste hau: «Ezizenak izana adierazten dau» (159), mozorroak izaera, gauzen benetako izaera.

### 1.4. Humorea

Hona hemen laugarrena. Beharbada, ez du aurreko karakteristikek duten garrantzirik, baina ez dugu horregatik alde batera utzi behar. Oso berezia bait da honen funtzioa: testuak erreztu egiten ditu humoreak, eta irakurlea liluratzeko ere oso elementu ona da.

Barrea eragiteko formula asko darabiltza Mikelek, gehienak jazoerak, hau da: bere ingurutik batutako txaskarrilo, eta txisteak. Arrazoi honengatik bereizten ditut hauek: Mikelen herri-zaletasunaren eta inguruko gauzak jasoteko ahalmenaren froga direlako.

## 2. Haurgintza minetan

Ardatz orokor batzu ikusi ondoren, goazen orain lan biak gaingiroki komentatzera. Lehen lan hau aztertzerakoan, aldatu egingo dugu pixka bat metodologia. Lanaren batasunak metodologia formalagoa, metodologia estrukturala, erabiltzera eraman gaitu.

### 2.1. Denbora

Denbora mugatu batetan desarroilatzen da nobela. Gabon Zahar - Urte berri eguneko hogeitalau orduak. Oso normatiboa da denbora nobela honetan. Lehen momentuetan batez ere, zenbat denbora pasatzen den markatzen saiatzen da idazlea («Gabeko hamaikak», «ordu biak»); geroago, ordea, egunez, askoz ere arinagoa da.

Hain denbora laburrak problema bat ekarri dio idazleari: mundu osoa adierazteko hogeitalau ordu. Irtenbide bezala, lekuak zabaldu egin dira, ez da ekintza leku bakarrean jazoten; plurala da lekua.

### 2.2. Tokia

Lekua dela eta, ohar bi egin nahi nituzke:

a) Lehenengoz, nobelan agertzen diren lekuak mugatu. Esan dugunez, lekua nahiko zabala da: Ekidazu (nobela honetan, Lezama), Botxoa (Bilbo), Gezala (Getxo). Txorierri aldean, baina leku zabala hain zuzen.

b) Bigarren oharra askoz ere inportanteagoa da: Ekidazu nahiko konkretua agertzen da nobelan: Lezama, Mikelen herria bera dela esan dugu; baina Ekidazuk, 'Euskadi' hitzaren letra berak ditu. Nire ustez, konkretutik unibertsalera pasa da. Eta niri, Gabriel Garcia Marquez-en 'Macondo' gogorarazi dit joera horrek. Azken batean, idazleak bere Herriaren irudi orokor bat ematen du.

Leku hori maila unibertsalera iristen da. Ekidazu jadanik

Euskadi da; baina IAAM liburuan, bere konkretutasuna galdu bagerik, giza-semeak mugitzen direneko mundu zabal osoa bihurtu da, «Macondo»ren kasuan bezala.

### 2.3. Kontalaria

Nobelaren kontalaria iratxo bat da, mito bat. Horrela, toki guztietan lekuko egon daitekeen kontalaria aurkitu du idazleak. Hori da kontalari honen abantaila, baina badu bere akatsa: Gezalara doala, hegazkina hartzen du garaiz heltzeko; eta hori ez da lar sinesgarria. Gauza bera gertatzen da iratxoak kotxe bat ohosten duenean.

Hala ere, argiak dira abantailak:

a) Leku guztietan testigu legez egoteko aukera du, kontalari orojakile tradizionala erabili gabe.

b) Bestalde, mito munduekin lotzeko bidea aukeratu du idazleak. Horrela mito mundua ere agertuko zaigu nobelan: Mari, sorginak, Kixmi, jentilak, ganekoak, beste iratxoak... euskal mitoen mundua.

Azkenik, antzinako euskal mundua adierazteko funtzioa du kontalari honek.

### 2.4. Hiru belaunaldi

Hemendik aurrera, gaiari lotuko gatzaizkio batez ere. Nobelaren gaia, herri baten historia da. Historia eta borroka. Hiru belaunaldiren bitartez ematen zaigun borroka.

1. Lehen belaundia: Euskal mundu tradizionalean sustraiturik dauden euskaldunak. Eskolastika eta Jose dira euskal mundu horren ezaugarri.
2. Gerra osteko belaunaldia, 40 urte inguru duen jendea. Oraindik euskara ondo menderatzen duena.

   Telebistaren bitartez, erdal munduaren influentzia jasan duen belaunaldia.
3. Hirugarren belaunaldia: gazteak, bigarrenekoen aurka jaikitzen direnak, intelektualismoaz eta iraultzaz berba egiten dutenak.

Oso sintomatikoa da: lehen belaunaldikoen ezaugarri Jose, nobelaren hasieran hiltzen da. Beraz, «Haurgintza minetan» dagoen emakumea eta honen umea (kuriosoa da; azkenean desagertu egiten dira, horien amaieraz ezer jakin gabe geratzen garela-

rik, etorkizunari idazleak egiten dion aipamen batekin) bigarren eta hirugarren belaunaldien artean geratuko dira.

### 2.5. Euskara

Euskara dugu idazleak herri horretan kokatzen duen arazorik larriena; ez euskararena huts-hutsean, baizik euskara eta euskara batuarena.

Amaia haurdun dago, ume berri bat jaiotzeko dago, herri horretan bizi diren espektaziopean, aita ezagunik ez duen hizkuntza bat eta «Aitzarteko» fraileen komentuan burruka batean desegitzeko arriskuan (idazlearen ikuspuntik) jaio den haurra.

Gorago aipatu dugunez, pertsonaia inportante (Amaia eta jaioko den haurra) bion berririk ez zaigu geratuko nobela amaitzean. Errealitatea horixe bait da: ezin dezakegu jakin euskararekin zer gertatuko den. Baina nobelaren koherentziaren aurka doala uste dut: ezin dira pertsonaia hain inportante bi galdu, desagertarazi nobelan.

### 2.6. Ijitoak

«Edonoiz etortzen dira ijitoak Ekidazura. Eta ernatu, bizkortu egiten dute herria» (HM, 168).

Pertsonaiarik nabarienak dira, eta esaldia benetan harrigarria gertatzen zaigu: pertsonaia horien funtzioa markatzen du. Haize berri natural bat dira. Askatasun eta naturaltasunaren ezaugarri. Mikelek berak esan zigunez, herria horren eredua konbertitu nahi ditu, benetako maitasunaren ispilu delarik nobelan agertzen den ezkontza horretan.

### 2.7. Teknikak: Ametsak eta iturriak

*Ametsak*: nobela osoa zehar agertzen den teknika bat azpimarkatu nahi nuke, *HM* nobelari buruzko saiotxo hau bukatzeko. Badirudi ametsen funtzioa plurala dela:

1. Sinbologi mailan geratzen direnak: Amaiarena.
2. Pertsonaiak deskribatzeko balio dutenak; sinbologi maila oso ondo betetzen dute beste elementuok: izen sinbologiak, etab.
3. Badago helburu errealista ere: «eleizean kristau entzule lozaleak» meza entzuten eta lo gozoaren ametsetan dabiltzala, kritika bihurtzen dira ametsok.

Ametsa Mikelen teknikaren elementu bat da; baina bada beste elementu garrantzizkorik ere: denak batera, Mikelen teknikaren adiezpide ditugu:

1. Momentu askotan «flash back» teknika erabiltzen du. Eta neri, Txomin Agirreren influentzia duela otutzen zait. Teknika honetan datza: pertsonaiaren deskripzio labur bat egin, ostean haren bizitzari buruzko zerbait kontatu, azkenik pertsonaiaren eritzi orokor bat emateko. Kitolisen kasua *Kresala*-n antzekoa da. Mikelek nobelaren lehen kapituluan erabiltzen du batez ere teknika hau.
2. Eszena solteak, kausalitate bagerik, bata bestearen ostean batu, eszena independienteak bailiran. Honek Celaren *La Colmena* nobelaren oihartzuna du.
3. Lekuaren deskripzioan markatu dugu Garcia Marquezekin duen zer ikusia.
4. Sinbologiak teknika bezala duen garrantzia aztertuta dugu jadanik. Momentu hartan argitaratu zen nobela batekin duen zer ikusia azpimarkatu nahi dugu orain. Nobela, Lertxundiren *Ajea du urturik* da: sinbolo teknikaz eginiko herri baten historioa.
   Eta beste aldetik, Mikelen nobela honek duen garraztasun eta samina, sentimentu legez, beste idazle batengan aurkitzen da: Gandiagarengan. Poetaren «txakolin ozpina» eta «Haurgintza minetan» den herria, herri bera da: gurea.

## 3. Ipuin antzeko alegi mingotsak

Beharbada, Zarateren libururik ederrena dugu. Eritzi honen arrazoiak eman nahi nituzke, konkretuki lerro guttitan orain, eta astiroago saiotxo hau zehar. Hona nire arrazoiak: 1) intuizioa da Mikelen baliorik onena; baina intuizioa laburra izaten da, eta ez da posible nobela bat intuizio sorta bat bihurtuz luzatzea; ikuspuntu honetatik, ipuinak idaztea irteera bat da, intuizio bakoitzari bere ipuina ematen bait zaio. 2) Liburuan ipuin bakoitza askea da, bere egitura simetrikoak (A. Manterolak aztertua du egituren puntu hau, eta argitaratuko omen), deskripzioak eta Mikelen estiloak behar duen «zabalera» erraztuz.

### 3.1. Herri estetika bat

Herriaren erantzuna lortu du Mikelek. Hiru edizio urte pare

baten bueltan. Herriaren erantzuna, bai, baina berak maite zuen herriarena: liburu larregirik irakurri ez duen herriarena, herri xehearena [2]. Beharbada ez duke herri guztiarena lortu, baina bai gure herri honen zati handi batena.

Herri estetika hori, hurrengo puntuetan oinarrituko nuke nik:

1. *Bizitzaren eragina*: «bizitza da libururik onena ikasteko eta irakasteko» (IAAM, 9). Bizitzatik (eta gogora dezagun, egilearen inguruko pertsonak eta haren pertsonaiak gutti irakurtzen dutela) hartu ditu bere gairik garrantzitsuenak Mikelek, eta ez liburuetatik, batez ere, irakurle posible horrengana hurbiltzeko. Liburu honen gaiak errepasatzen baditugu, berehala konturatuko gara gaiok gure oraingo bizitza konkretuarekin duten hurbiltasunaz: Euskal Herriaren zapalketa, ahaltsuen indarkeria (dirudunena: «Zaldibi», edo indarra dutenena: «Sariketa nagusia»). Gaurregungo euskararen arazoak («Idatz eta mintz», beharbada bere lanik borobilena), askatasun guraria («Arrankarien burritosuna»), gure egoera politikoak dakarren mingostasuna («Eskoikale, Ezkerkale eta Erdikale»), filosofia praktiko batekin zer ikusirik duten gaiak (maitasuna, nortasuna, kontsumismoaren aurkakoak), ekina, herri zorigaiztoko honen irtenbideak («Arrastaka», «Ekinaren iruzurra»), eta Literatura zelan egin behar den: literatura herriaren gustogai bihurtzeko («Idatz eta Mintz» eta «Erriederko alegia»), Izadia eta gizonaren arteko harreman kontaminanteak («Uraren ileta»). Aipatu besterik egin gabe, kolpez agertzen zaizkigu, gure herritar arruntaren [3] arazoak. Bestalde, esan gabe doa honelako gai batzu, gure herriko forma hartu arren, edozein herritarako baliodunak direla.

2. *Alegiak eta didaktika.* Alegiak idatzi badira, herriari irakasteko idatzi dira, azken moralejaren bitartez irakasteko. Oso fama handia izan dute alegiek gure herrian (Iturriaga aipatu besterik ez dago). Gaurko ipuinak idazteko honelako estruktura bat hautatu, herriaren eta literaturaren arteko jauzia berdintzeko saio bezala hautatzen dela esan dezakegu [4].

   Dena dela, estruktura zaharra izan arren, bada, alegiok gaurkotzeko zenbait elementu. Gaiak gaurkotze prozesoaren alderdi bat dira. Baina besteok ere garrantzi handiko papera jokatzen dute: 1) abere klasikoen artean

(leoi, otso) gure inguruko abereak jartzea (miru, erle, marraskilo); 2) gaurko tresnen personifikazioa, eta 3) teknika literario aldetik, oso inportantea dena: abere ipuinetan abere ikuspegia lortzea (erpatitz, etab.).

### 3.2. Estruktura manikeoak

Alde onaren eta alde txarraren arteko borroka gai amaiezina dugu ahozko euskal ipuinetan, eta herri antzerkian ere, pastoraletan eta, hori dugu gai nagusia. Bikoiztasun hori, forma mailan, pertsonaia biren arteko eszena diren ipuinetan isladatu du Mikelek. «Baikor eta Ezkor», «Menditzar ta Menditxo», «Idatz eta Mintz», «Bestelan ondo», «Aberetasuna ta aberekeria»; orobat, erdi bi dituzten ipuinetan: Espainia eta Euskal Herriari buruzkoetan. Hemen nabarmentzen dugu batez ere bikoiztasun hura.

### 3.3. Genero literarioak

Mikelen alegiak ez dira kontaketa huts; hiru genero nagusien nahasketa direla esango nuke. Gehienetan, kontaketak inguru bat deskribatzen du, pertsonaiek elkarrizketan dihardute, gehienetan kontalariaren presentziarik gabe, eta ipuinak bukatzeko, idazleak bertso batzu ematen ditu, bertsolari bertsoak, ez olerkariarenak.

Bertsoak ez dira azkenean bakarrik ematen, erdian ere agertzen dira. Azkenekoek moraleja daramate barnean; erdikoen funtzioa, berriz, testua arintzea dateke.

### 3.4. Kontaketa mota klasikoa

Mikelen kontaketak ez dira konplikatuak izan ohi. Haria hasi eta zuzen-zuzen doa bukatu arte. Ez da gaitza linealtasun horretan [5] estruktura klasikoa nabaritzea: «aurkezpena, korapiloa, amaiera» delako estruktura, alegia. Baina, lehen ere esan dugunez, puntu bakoitzeko genero bana erabiliz.

Kontaketa mota klasiko hori, beste elementu klasikoen maisutasunezko erabileraz hornitzen da: deskripzioak («Arrankariren burritasuna» hasten duena zoragarria da), irakurlea hurbilarazteko; elkarrizketak, kuriositatea pizteko; elkarrizketetan, amaigabeko erreplikak, klimaxa luzatzeko...

Horrelako estruktura linealek desarroilo egoki baterako aukera eskaintzen dute Mikelen intuizioak, hainbeste aipatutako in-

tuizioak urratsez urrats luzatzeko. Kontaketa narrazio laburrok dirudite Mikelen intuizioentzat desarroilorik naturalena.

### 3.5. Estiloari buruz

Mikelen estiloaz, herri estetika honekin zer ikusia duen puntu bat bakarrik aztertu nahi nuke: herri hizkuntzaren influentzia. Ikus daitekeenez, estiloaren atal bat bakarrik dugu hau; Mikelen estiloak aldiz, beste lan bat behar du.

Herri hizkuntzaren influentzia, nabari-nabaria dugu. Demostraziorik behar ez zukeena; hala ere, puntutxo batzu ukituko ditugu [6]:

1. Afirmazio orokor bat: «Egiederko alegi»n kontatzen zaigunez, herri literatura babestu du Mikelek bere etxean. Herri literatura horretan «Atsotitz» aurkitzen dugu. Hona hemen, Mikelen estiloaren ezaugarri bat. «Gero, otz ez dana bero» (IAAM, 25).
2. Esaldi errimatuen erabilera (IAAM, 23).
3. Batez ere esaldi laburrak erabiltzea. Baina, Mikelen joskeraz ohar bat: esaldi nagusia laburra izaten da askotan, baina inguru bat egiten dio idazleak, arinagotzeko, aditz jokagabeez. Esaterako: «Eta egunak joan, eta egunak etorri, titia edan eta titia edan, urteak joan eta urteak etorri, edan eta jan, jan eta edan, andi egin ziran» (IAAM, 22): Kasu esaldiaren simetriari, eta nola esaldi nagusiak apurtzen duen simetria hori. Enbutuaren muturra bailitzan, azkenean geratzen zaigu kontenido aldetik mezurik handiena daraman esaldia: nagusia.
4. Errepikapenak eta Paralelismoak.
5. Hitz-hotsak: IAAM, 19 eta 20 orrietan 3 txori-soinu ezberdin ematen zaizkigu.
6. Hots berdintsuen jokuak: «txori txirripitxtxiolarien...» (IAAM, 20).
7. Klitxeak: «Zer ba?», «Ez. Ez auxe», «uste dot, ba, nik», «Zer ekian, ba arek», «Ia goazen arin»...

Alde batera utzi ditugu metaforak eta latinoentzat hain inportanteak ziren espresabideak, Mikelen estiloari buruzko gainbegiratu honetan. Arrazoi bigatik egin dugu hori: lehenik, lantxo hau hitz eta espresabide zerrenda ez bihurtzearren, eta bigarrenik, bere herriak uler zezan Mikelek egin zituen ahaleginak azpimarkatzearren, herriari «zor ziona» herriari bueltatzen egin zituen eginahalei omenaldi antzeko bat opatzearren.

## II. OLERKIGINTZA *

*«Mikel, nire ustez, ipuinlari obea genduen olerkari baiño»*
(A. Manterola, *Deia,* 79-4-2)

### 4. Mikel Zarateren poesiaren definiziorantz

Goian jarri dugun esaldi hori ez da haren inguruan bizi ginenon eritziaren ispilua baizik. Askotan esaten zitzaion Mikeli bere narratibak indaı gehiago zuela bere olerkiak baino. Eritzi berekoa naiz ni ere.

Honek ez du esan nahi Mikelen olerkigintza txarra zenik. Esan nahi duguna, hau da: ez zegoela narratibaren mailan, eta (agian asko esijitzen genion Zarateri) bere poesiak ez gintuela betetzen.

Saio honen lehen aldean, Mikelen poesiaren definizio positibo bat eman nai dugu. Horen karakteristikarik nagusienak seinalatu, aztertu eta gaurko poesiaren kontestuan jarri.

#### 4.1. Helburua

Mikelen idaztietan ez dugu irakurri, baina badakigu zertarako idazten zuen poesia [7]. Asmo hau zuen: Kreazio lana egiteaz batera, aurretiaz euskaraz ukitu gabeko poesi moldeak egiten saiatzea. Lehen poema liburua, *Higidura berdez,* 1976. urtean bukatua zuen. 1974. urtean bukatu zuen Deustuko Unibertsitatean Filologia Romanikoa. Beraz, Unibertsitateko azken urteetan jarri zen kanpoko poetak ezagutzen, aztertzen; eta haien eragina sentitzen hasi.

Eragin horiek konkretatu orduan, nik gerra aurrekoak azpimarkatuko nituzke batez ere. Metafora erabiltzerakoan inportanteak dira *Generación del* 27-koen bideak. Izenak: Lorca eta D. Alonso (nabarmena dugu idazle honen eragina Mikel kritikalariagan). Inoiz, metafora intuitibo batzutan, Gómez de la Sernaren *Greguerias*-ko teknika jarraitu duela dirudi, baina anpulosoago, behar bada, ez idazle honek formari ematen zion urritasunean.

* Azterketa hau hiru liburu arakatuz egina dago: *Higidura berdez,* 1977; *Bizipenen bultzadaz,* 1978, *Etorriaren zorabioz,* argitara gabea. Ez dut *Utopiaren fantasian* kontsultatzerik izan. Inizialez aipatuko dira liburuok.

### 4.2. Modernoa?

Mikelen poesiaren bigarren datua, niretzat galdera bat da: Mikelen poesia modernoa ote? Modernoa bai, historian behintzat, gaur kokatu behar bait dugu. Baina haren poesiaren erroek (begira iturritzat hartu dituen idazleen lista) urrun ez dagoen iragan batetan sustraiturik dirudite.

Modernoa da, baina ez azken-azken momentukoa. Hau baieztatzeko, Mikelen poesiaren hutsune bat azpimarkatu nahi dut, niretzat oinarrizkoa, eta haren poesiaren klabe moduan agertzen dena: Mikelen poesia ez da poesia ebokatzailea. Idazleak, dirudienez, ez du irakurlearen intuizioan konfiantzarik. Gauzak azalduak daude, batzutan larregi azalduak, (seinala dezagun hitzen pilaketarako joera), eta irakurleak ez du parterik hartzen joku poetikoan, dena egina aurkitzen du. Zaratek ez du misterioranzko aterik irekitzen.

Ebokatzailea ez izanez, poema ez zaigu autonomoa gertatzen. Irakurlea irten irteten da poematik, baina ez, lehentxoago aipatu dudanez, misteriora, estetika mundura, ezpada errealitatera. Azal dezadan: Mikeli benetan *gertaturiko* zerbait izaten da poemaren oinarria. Poema «ulertzeko», gertatu hori ulertu behar dugu. Errealitatea ulertu.

Adibide moduan: «Aurrera hartuko...» poema (HB, 90) Hamburgon gertaturiko topaketa batek sortua da: lehenik topaketa kontatuko da («Hamburgon izan'zen»), eta gero topaketak sortzen dituen pentsamentuak jarriko («Ematxar?.../Emasaldu?/ Emagaldu...?»).

Ebokatzen ez dutelarik (konnotazio faltaz batzuk), denotazioan geratzen dira poesiak. Puntu hau hirugarren oharrean ikusiko dugu.

### 4.3. Poesia narratiboa

Mikelen poesia narratiboa dela diodanean, zera azpimarkatu nahi dut: denotazio mailan mugitzen denean, haren poesiak lirikoa ez den elementu bat erabiltzen duela: narratiba.

Mikelen kasuan, narratibak inportantzia handia du: nobelagile legez hobea dela uste dut. Mikelen narrazio zaletasuna ez da nobelatara mugatu eta olerkigintzara pasa da, genero bien kaltetan nire ustez. Olerkigintzan sartu zenean oso gutti idatzi zuen prosaz, eta narratibak indar lirikoa ahuldu egin dio olerkiari. Horrela, olerkigintza enuntziatiboa egiten du.

Ez da zaila adibide batzu ematea: B.B. liburuaren lehen par-

tea, kontatu egiten diren gertakariz betea dago: «Buenos días» dugu, dena dela, aipagarriena. Poemak anekdota bat kontatzen du. Gaia (mitoen bitartez) ez da berez gertakaria bakarrik: beldurraren errepresentazioa izan nahi du poemak; baina kutsu narratiboa dela eta (pertsonaien aurkezpena, anekdota lekuz eta aldiz markatzea) ez du lortzen behar zuen unibertsaltasunik. Gaiak berak baino indar gehiago du anekdotak.

Klabe narratiboaren indarra frogatzeko ohartxo bi azkenik:

1. Deskripzioa, hainbatetan, narrazioaren teknika da. Olerkietan erabiltzen dela? Bai. Baina lirika, azken urteotan, beste bidetatik ibili da: denporarik eta lekurik ez dagoeneko munduaren bidetik.
2. Hau (eta aitortza beharrezkoa da) ez da intuizio bat baino; baina zenbait poematan agertzen dela eta, kontutan hartu dugu: aditzaren lehen aldia (gertatukoa kontatzeko erabiltzen dena) askotxotan erabilten dela: «irakatsi zidaten» (B.B., 20), «esan zion» (B.B., 21), «eman zidan» (B.B., 48), «amak bakarrik / euskera hutsik / irakatsi» (EZ, 2). Sakonkiago aztertu beharra dago hau, baina joera nabarmena da, batez ere narratibotasunez estrukturatutako poemetan.

### 4.4. Intuizioa

Mikelen poemetan hau nabaritzen dugu (eta bidebatez, haien estrukturen puntu bat ukituko dugu): poema gehienak intuizio batetan oinharritzen direla. Azalduko dut: intuizioa zabala da, kalerik kale gabiltzanean edo loak luzatzen duenean, bapatean argitzen den ideia, gonbarazioa, metafora. Gehienetan baliosak dira Mikelen intuizioak. Honetan datza haren bertuterik aipagarrienetako bat.

Hona adibide batzu: «Haurra izan nintzen» poeman hau da intuizioa: «ditut irakiten, / oroimenaren hotsetan, / egun gorri haiek» (B.B., 20); «Buenos días» poeman, erderazko hutsa (B.B., 21); «Abiadoren irudikerian», orratzaren mugimendua; «Pintadak»ean, iraun nahiaren borroka (B.B., 35). Argiago ikusten da poema bisualetan: «Nire bizitzan» (H.B., 24), duda-muda; «Hiriko etxe haundi bat»ean, altura. «Bila nabil»en (H.B., 96), bilakuntzaren laberintoa. Argiago, zeren kasu hauetan intuizioa dibujaturik agertzen bait da.

Baina intuizioa, gero, poema bihurtu behar da. Horretarako, bide bi jarraitzen ditu Mikelek:

1. Intuizioa estribilo bihurtzea: horrela, erritmo jarraiko bat lortu nahi du poeman, hau bere borobiltasunean bururik. «Haurra izan nintzen» (B.B., 20), «1969» (B.B., 47), «Ez da poeta» (E2., 9), «Oroitzapenezko glosak» (E2., 6), «Uhain berri etsipendua» (H.B., 37).
2. Bertsolarien teknika jarraitzea: intuizioa azken puntu legez konsideratu eta azkenerako gorde: «Hilargian» (H.B., 25), «Murgil zaitez» (H.B., 18), «Aresti» (H.B., 36), «Derioko kanposantuan» (H.B., 59). Astiroago ikus dezagun adibide bat: «Astoa» (H.B., 52). Kasu honetan intuizioa hirukoitza da:

   astoa — filosofo jatorra.
   astoa — Vespa bizi eta segurua.
   astoa — gizon onaren irudia.

   Intuiziok estrofen azken momentuan agertzen dira, eta hirugarrena poemaren amaieran. Gauza bera gertatzen da «Azkenean» (H.B., 87).

#### 4.5. Poesia kontzeptuala

Zentzu zabal batean hartzen dut «kontzeptual» hitza, beharbada berez ez dituen esanahi batzu erantsiz. Poesia kontzeptualaren karakteristikarik zehatzena, hau litzateke: poesiaren estrukturazioan, kreazioan, adimenak paper garrantzizkoa jokatzen duela.

1. «Kontzeptual» hitzak, poesiaren gaitzat konzeptuak edo ideiak erabiltzen dituen poesia adierazten du.
2. Intuizioa era ezberdinetakoa izaten da; intuizioa poema bihurtzeko, Mikelek *pentsatu* egiten du poema, idatzi aurretik bere buruaren bakardadean elaboratu. Nabaria da elaborazioa Mikelen poemetan.

   Prosezu hau, «kontzeptuala» izenda dezakegu.

   Lehen puntua sakondu nahi nuke. Mikelek erabiltzen dituen gaiak errealitatetik hartuak dira: Euskara, Euskadi, Olerkia zer den. Ez dut esan nahi, noski, poesia kontzeptualak sentimenduak uxatu egiten dituenik. Hori ez da egia. Baina ukaezina da Mikelen poesian objetibitateak duen indarra.

   Gaiek, ez diote irakurleari sentimendu bat eskatzen; poesiaren efektibitatea ukatu gabe ere, erantzunak extratestualak dira, eta Mikelek proposatzen duen ekintza ja-

sotzeko, bereganatzeko, irakurleak, bere aldetik, beste prosezu erreflexibo bat bete beharko du.

Poesia honetan datu batek harritu nau. Poesia kontzeptuala dela diodan arren, ez dut uste gai filosofikorik dagoenik (salbu bera nor den, zer den, bere «kezka» azaltzen dutenak). Mikelen poemen gai asko eta asko ingurutik ateraiak dira. Inguru horrek, baserriko inguruak, poema liluragarriak sorrarazi dizkio batzutan. Eta bestetan, gaurko Euskal Herriaren arazoetatik sortutako inguruak, poesia sozial gartsua inspiratu dio. Bigarren inguru honi erantzuten, bere erantzuna ematen saiatzen da Mikel bere poesian.

### 4.6. Kontzeptua eta modernismoa

Honetan datza, agian, Mikelen poesian ondo neurtu bagerik agertzen den zerbait. Gai filosofikoak erabili dituen olerkariak forma gogor, adornu bageaz baliatzen da. (Gogora Quevedo, Unamuno, Otero). Baina Mikel, askotan forma modernistari lotzen zaio, gai filosofikoa ez bait du noiz behinka baino erabiltzen. Erdibide batean geratu da Mikel. Gai filosofiko hutsik ez, baina errealitatea bai, poesia kontzeptuala egin nahirik.

Forma aldetik ere erdibidean aurkitzen da: forma modernistek egokiak dirudite poesia intimista, edo ebasibarako. Errealitatearentzat, berriz, narratiboak (ez dezagun ahantz poesia sozialak narratibaz egin duen erabilera). Narratibarekin kutsu modernista duten joerak nahastu ditu Mikelek. Kutsu modernistaz eraturiko poemen adibiderik onenak, joku tipografikoz eratuak dira.

### 4.7. Gaietaz

Saio hau egiteko irakurri ditugun hiru liburuek gai bera darabilte [8], tonu berean idatziak bailiran. Adibidez, (H.B.) liburuko «Pompei» poema eta B.B.-ko «Vesubio» poemek kointzidentzia hauek behintzat agertzen dituzte: titulua, gaia eta gonbarazio batetan oinarriturik egotea (Vesubio, Ponpeia = gure herriaren irudia).

Mikelen gaiak, oinarrizkoen zaizkion asmo, amets eta arazoen ispilu dira.

Baina gaiok, nire ustez, posibilitate bat dute: prosaz ere erabiltzeko gauza izatea. Euskara (haren gai gogoko bat) dela eta, saioak ere egin daitezke. Olerkia zer denari buruz, Literaturaren Teoria da beste bide bat. Baina, dudarik gabe, oso ezberdina da perspektiba poetikoa: irakurleengandik hurbilago egiten da.

### 4.8. Poemen tentsioa

Intuizioaz hitz egin dugunean, Mikelen teknika bat aipatu dugu: intuizioa azkenerako gordetzea, haren sorpresak irakurlea uki dezan. Baina horrek arrisku batean jarri ditu poemak, hauen erdi aldea desarroilo bagerik geratzen bait da. Desarroiloa bide beretatik doa beti: pilaketa dei dezakegun teknika literarioaren bidetik. Joera honek dinamikarik gabe uzten du poema, eta nik galdera bat egingo nuke: dinamika falta hori ez ote da izango poema prosa poetikoz idatzirik hobe zegokeelako?

Erreflexio honetan jarraituz, eta ez galdera horren erantzunez, datu batek atentzioa eman dit: B.B. liburuko «Gizartearen karikatura», poema, lehenago *Ipuin antzeko alegi mingotsak* liburuan prosaz agertua zen, aldaketa batzu gorabehera. Prosaz, zati horrek deskripzio funtzioa zuen bere alegian. Gero, olerkiz ematean (erritmoak markatzen du horren poematasuna), zerbait apaurtua ematen da. kontestutik ateraia dago eta deskripzioak ez du alegian zuen indarrik lortzen, alegian gertatuko zenaren prestaera bait zen.

Horregatik, poemak aztertzerakoan, teknikak duen garrantzia nabarmendu beharra daukagu. Baina, honekin batera, baita teknika hutsetan geratzen den idazlea den ala ez ikusi ere.

Normalean, gure poemak estruktura nahiko azter-errazak dituzte. Figura poetiko batetan oinarrituak daude normalean; argi ikusten da hori: adibidez, hona «Ardoaren doinuz» (HB 73) poemaren estruktura argia: izena + ren / Izena + ren / zena. Sei bider agertzen da eskema hau, eta, gainera, poeman agertzen diren izen guztiek amaiera bera (-ea) dute.

«Balizko olaren oihartzuna» poemaren estruktura ere oso berezia da: errefrau antzera egina dago, elementu biren jokuz: baldintzazko orain aldia eta, bertso pareetan, ametsaren baldintzaren hutsunea, errealitaterik eza markatzen duten ideiak.

Estruktura pentsatu hauek, arkitektura zentzua ematen diote poemari, baina barneko dinamikarik gabe uztera eramaten dute. Horrexegatik agian, poema tikiak hobeak iruditzen zaizkit. Hauek dirateke arrazoiak: poema laburretan intuizioaren tentsioak poema osoan irauten du, ez bait dute hutsunerik edo atal dinamika gaberik; eta, bigarren, poema tikiotan intuizioak, esanahiak, formak baino indar handiagoa du. Mikelek ez du kasu honetan forma muntaiorik egin beharrik: intuizioa bere indar guztiaz komunikatzen zaigu.

#### 4.9. Poesia honen iturri herrikoia

Influentziaz berba egin dugun bakoitzean, kanpoko idazleak aipatu ditugu orain arte, baina Mikelen olerkigintzak badu bigarren iturri bat ere: herria, zentzu bitan: herria bera, bere bizitzan, eta herri literatura

Lehen zentzuan ez da poesian larregi agertzen (narratiban askoz ere inportantzia handiagoa du; dena dela, hona adibide argi bat: «1975, Azaroak 21», fetxa seinalatu batean idatzia; poemaren gaia, herritik jasotako bapateko bertso eder baten goratzea bihurtzen da.

Herriak bere literaturan presente egoteko duen bigarren bidea askoz ere inportanteagoa da: Herri literaturak izugarrizko zartada egin dio beti Mikeli. Ez da ahantzi behar, On Manuel Lekuonaren bideari jarraitzeko asmoa zuela, noiz edo noiz Herri literaturari buruz egitekoa zuen lan aberats batetan. Egia esan, azterketa batzu eginak zituen herri literaturaz. Honen froga, Deustuko Unibertsitateko Euskal Literatura eskoletan banaturiko apunteak dira. Nire ustez, bost maila bereiz daitezke herri literaturaren erabileran:

1. Errefrauak materia poetiko legez erabiltzea: «Balizko errota».
2. Estribiloetarako, herritik jasotako motak erabiltzea. Badirudi batez ere sentidu bakoak («Ttunkuttunku») gustatzen zaizkiola (HB 83,46).
3. Herri literatura bera gaitzat hartzea. Exenpluak badira: HB, 48. Beharbada «Bertso paperei» egindako poema da adibiderik hoberena (BB 49).
4. Teknika aldea ere kontutan hartzekoa dela uste dut. Alderdi bi ikusten ditut hemen argi-argi:
   a) Lehen esan dugunez, Mikelek askotan erabiltzen du bertsolarien teknika, intuizioa azkenerako gordeaz.
   b) Kopla zaharren eragina nabarmena dela esango nuke, poema batzutan. Adibidez:

      Udaberriak neguauxa
      ba dator pinpilinpauxa (HB, 46)

   Nire ustez, esaldi bion arteko kointzidentzia kronologikoa (negua joan / pinpilinpauxa etorri) ez da nahikoa bertso bi horien esangura osorik ulertzeko. Logikoa ez den zerbait dago hor (ekintza bien arteko

jauzia) eta kopla zaharren etendura gogorarazi digun zerbait.

Badira beste metafora batzu irrazionalitatez osatuak: asto - vespa, bentilador - libelula. Kasu honetan, irrazionalitatea kanpoko idazleen influentziaz datorkio.

5. Azken eragina estiloari dagokio. Mikel Zaratek asko maite ditu herri literaturan erabiltzen diren espresabideak: hitz-hotsak: «ziz-zazt» (EZ, 16), hitz berdinak kontsonante bat aldaturik: «txutxu ta mutxu» (BB, 28). Honetan gauza bi bereizi behar dira: hizkuntza herrikoia da; baina ez dut uste estetika herrikoia denik. Estetika herrikoia nobelagintzan hobeto lortua dagoela uste dut: espresabideez aparte, bai bait dago beste elementu estruktural herrikoirik; eta azkenik, hizkuntza herrikioa erabiltzeko erosoago sentitzen bait da prosan.

Kanpoko poeten influentziak aztertzerakoan, kontuan izan beharko dugu gorago emandako idazleen zerrenda.

Nire ustez, joera batean laburtzen dira influentziak: metafora erabiltzeko joeran, eta metaforak poesian duten lekuaz konturatzean. Badira Mikelen poemen artean metafora hutsen errenkadak direnak.

**4.10. Sonetoak**

Sonetoa ez da larregi erabili izan Euskal Herriko Literaturan. Hemen dago, nire ustez, Mikelen olerkigintzaren lorpenik inportanteena. Arrazoiongatik:

1. Gai kontzeptualak adierazteko, askoz ere jatorragoak dira sonetoak, beste estrofa klaseak baino.
2. Estruktura sinpleak alde batera utzirik, sonetoetan erabiltzen du estruktura motarik gehiena, etab. Lehen irakurketan ez dira ikusten estrukturak.
3. Hirugarren arrazoia, metrikazkoa dugu. Mikelek esanda dakigu, bere sonetoetan 6 +5 neurria erabiltzen saiatu zela [9]. Hots: zortziko ttikiaren antzeko neurria.
4. Bertso librean ari denean prosara hurreratzen dela Mikel, forma aldetik duen askatasunagatik; sonetoak, berriz, mugak jartzen ditu hori gerta ez dadin.

**4.11. Poesia honen efektibitatea**

«Olerki samur eta beroak bereak; bere biozkadak; errikoi eta aberkoiak... Txapela kenduta irakurri bearreko olerkiak» [10].

Testu honek bihotzetik irtendako kritika dirudi, inpresio hutsa, froga bakoa. Nire ustez, eritzia batere kritikoa ez izanik ere, puntu batzutan asmatu egin du Zubikaraik.

Baina, bada ordua, olerkiaren kontzepzio tradizional-erromantiko berankor batek sor lezakeen eritzi ustela alde batera utzi, eta serioski, benetan, egi-egian, Mikelen poesia zer den eta zer lortu duen aztertzeko.

1. Ez nago batere ados eritziaren parte honekin: «bere biozkadak». Nire ustez, gorago demostratu dut zein leku duen «buruak» Mikelen poesia eratzerakoan. Hori, frogatzeko badugu beste bide bat ere: Mikelen lagunek [11] esan zidatenez, azken batean saiakera da haren poesia [12]. Erdal idazleak irakurriaz batera idazten du poesia, haien bideak euskaratuz. Hau da, lehendabizi poeta bat ezagutzen du eta gero, haren erak jorratzen hasten da. Kritika egin ahala idazten zuen poesia Mikelek. Prozesu hau burutzeko, prozesu intelektuala behar da. Besterik da gai batzu bihotzetik sortuak izatea (euskeraren maitasuna, esate baterako).

   Alderdi honetatik begiratuz, Mikelen poesiak badu balio pedagogiko bat. Literaturan eta testu azterketan sartzen hasteko, oso interesgarriak izango dira, haren joera intelektual horiek, asko balioko dute estrukturak eta espresabideen ereduak aurkitzeko.

2. Dudarik gabe, poesia aberkoia egin du Mikelek. Hori, ordea, ez da bada balio literarioa, haren lanaren karakteristika bada ere.

3. Gorago aipatu dugun esaldiak, nahiko ondo adierazten du beste hau: Mikelen poesia tradizio literario batzuren artean kokatzen dela, baina Mikelek ez duela deus gutxi baino aportatu; ez da aurrelari legez presentatu poesi munduan [13]; eta horregatik ere, Mikelen poesia oso ondo irakurriko da gure herrian, ez bait du ulertzeko oztopo larregirik (hizkuntzaren aberastasuna diteke, nire ustez, bakarra), eta bestalde, gaurko kontsetsuan asko hunkitzen duten gai sozialak erabiltzen bait ditu. «Txapela kenduta» irakurriko du jenteak: irakurle-idazleen arteko lotura lortzen jakin du eta Mikelek.

---

[1] Beste alderdi batetik, dena dela, irabazi egin du, euskal mitoen munduan sartzeko bide bait da iratxo hori.

[2] Dudarik gabe, herri sektore hau zen Mikelen 'narratorioa', bere

liburuak herri honentzat egin zituen (batez ere, ez bakarrik), eta berak bakarrik irabazi zuen euskal irakurle berri aldra polita.

[3] «Arrunt» hitzak, hartzen dugun bezala, ez du konkretutasunik baina jo dezagun «gizon arrunt» hori, baserrian bizi arren ere, hiri kulturaren ondorioez (telebista, kotxe,...) jabetatua dagoena dela.

[4] Eritzi hau nolabait frogatzeko, egileak «Egiederko alegi»n espresatzen duen bere literaturgintzaren zutabe bat aipatuko nuke: herri literatura Egiedertik bota egin dute Saiok, Eleberritik eta Antzerkik, eta idazleak bere etxean hartu du; horiek dira idazlearen iturri lotu ezinak.

[5] Badira izan atzeranzko jauziak, baina ez dute iluntasunik sortzen ulertzeko unean (adib. «Uraren ileta»).

[6] Datuok, Mikelen ipuin bat, «Idatz eta Mintz» bakarrik aztertuz atera ditut, beste ipuin batzurekin gonbaratu dut, ordea, eta nahiz-eta besteren bat falta, bitan baino gehiagotan frogatu ditugu elementuok liburuan zehar.

[7] Datu honen ezaguera J. A. Etxezarragari zor diogu.

[8] *Utopiaren fantasiaz* liburuak konstante hau apurtzen duen ala ez ikusi beharko.

[9] Eta ez 5 + 6, *Jakin* 9. zenbakian esaten nuenez.

[10] Zubikarai: «Agur, Mikel», in: *Deia,* 1979 Apirilak 13, 2 or.

[11] Txelis Beltrani zor diot datua.

[12] Nabaria dugu Mikel hizkuntzaren jabe zena. Haren estiloari buruz, ohar labur batzu egin nahi nituzke, amaitzeko, oso gainetik bada ere: 1) Hiztegiaren aberastasuna; 2) parrafo luzeen zaletasuna. Izen sintagmetan oinarrituriko esaldiak. Esaldien artean aipatzekoa da, /Izenko Izenren Izena/ sintagmarik erabiliena.

[13] Ezaguarazteko bilatu zuen bidea ere, nahiko tradizionala da: sariketak.

79.06.02 *J. K.*

# H. Marcuse hil da

1969an JAKIN-ek zenbaki berezi bat Marcuseri buruz prestatu zuen (JAKIN 35, 1969, epaila-maiatza) eta ez zuen izan haren izena osorik aipatzerik: beti M., edo «pentsalaria», «filosofoa», etab., esatera behartu gintuen zentsurak. Marcuse esaterik ez zegoen: subersiboa zen haren izena bera aipatzea.

Hil da Herbert Marcuse, 1898ko uztailaren 19an Berlinen sortua, Frankfurteko Eskolako buruetakoa, eragile haundienetako bat marxismoaren eta, jeneralkiago, pentsamendu sozial kritikoaren berriztapenean. Ortodoxia sobiet-marxistak anarkistatzat eta mendebalde liberaleko arrazionalismo konformistak erromantikotzat joa, «68ko maiatzaren» aitagoi deitua, filosofo judu-aleman kezkatia heretiko bat izan da eliza filosofiko guzientzat, esistentzialismoaren (Heidegger), marxismoaren eta freudismoaren artean enbarazo gabe mogitzen zena, gure mendearen lehen erdiko korronte inportanteenak bere gogoetetan bilduz.

Marcuse mito bat baino gehiago izan da: errealitate bat, bizi-bizia. Intelektual bat. Konprometatua. Borrokaria. Ezein sistematan geratzen ez zena, beti eboluzioan, beti irekita, larogei urterekin ere bide berrietan abiatzeko ausart.

Sujetuari ematen zaion inportantzia da, beharbada, Marcuse-ren filosofian destakatzen dena, eboluzio guzian zehar beti ardatz gisa konstante aurkitzen duguna, fase esistentzialistan, materialistan nahiz freudo-marxistan (holako hiru aldi berezi ohi bait dira haren pentsabideetan). Heidegger-i jarraiki abiatu zen Marcuse: hots, esistentziaren historikotasun irristakorrari buruz, Dasein analisi heideggerianoa sakonduz eta gizarte burgesaren antropologia hezurmamituz. Marxismo fenomenologiko bat. Ezkertiarrek historiaren eta bilakaduraren, progresoaren, izenean mespretxatzen ohi zuten «biologismo» freudianoa, Marcuse-k, gizabanakoaren egoera interpretaziotatik eta medikuntzatik historiaren interpretaziorako tresna oinarrizkotara altxatu du bortizki: plazerra, atsegina, histori filosofiako kontzeptu itzuli du, plano indibidual soiletik historiko eta filosofikora zabalduz. H. d., naturaren kontzeptua berrirabazi du historiaren interpretaziorako, Hegel eta Marx-ez gero bazterturik geratu bait zen, historia, gizonagandik aparte, gizonaren aurrez-aurre, hor-

matzar itsu bat bezala, Prometeok igo behar duena, berezko objetibotasun batetan bururatuz, bere lege burdinezkoez, etab. Histori filosofia hegelianoan eta marxistan, historia, bere barne lege omen direlakoen baitatik esplikatzen da eta legitimatzen da: «progresoa» burutzen duten legeen baitatik hain zuzen; Marcuse-k, gizonaren desiren eta antsien eta utopien aldetik interpretatu eta legitimatu —edo kondenatu— nahi du. Historiaren interpretazio estetiko, interpretazio erotiko bat ere, oposatzen dio XIXgn mendeari.

Esklaberia tekniko herstuenera dakarren progresoaren printzipioari, gozamenaren printzipioa oposatzen dio Marcuse-k. Hobeki, gozamenaren printzipioa beste progreso printzipiorik ez du nahi ezagutu.

Geroz eta gehiago, korrientea eta normala bilakatzen ari da, historia, progresoa, plazerraren perspektibatik epaitzea: munduko gauzarik naturalenak iruditzen zaizkigu mogimendu ekologista, zentral nuklearren aurkako protesta, etab.; plazer esijentzia gizon eta emakumeen arteko erlazioen printzipio oinarrizko bat bilakatu da (familiaren oinarri bezala ikusten da, esate baterako), orain arteko mentalitatean horrek dakarren iraultzarekin, etab., etab. Mintzamolde berri eskandaloso bat nagusitu da. Hots, epaimolde berri bat. Hots, histori filosofia berri bat. Aski pentsatzen eta azpimarkatzen ez den puntua da, barne-barnean nolako iraultza histori-filosofikoa suposatzen duen, XIX. mendearen aldean, protesta mogimendu antinuklearrak esate baterako. Eta ez du logikarik falta, batek baino gehiagok, bere premisa XIX. mendetiarretatik, mogimendu antinuklearrari erromantiko sentimental eta erreakzionari baderitzo: «progresoaren kontra» dihoa! Bistan bait dago, aurrerapen teknikoari oposatzen zitzaizkion langile «makina txikitzaileen» errebolta egunetatik oraingo mogimendu antinuklearrera, progresoaren kontzeptua zeharo itzulipurdikatu dela. Beraz, histori filosofia guzia.

Hizkera berria da egungo gazteriari, protesta mogimenduei, entzuten zaiena. Ez du zerikusirik XIX. mendeko filosofien eta mogimendu sozialen tematika nagusiekin. Marx-en textuak eta oraingo errebindikapenetako mintzamoldea alderatzea besterik ez dago, batetik bestera, jarraitzapenean, baina nolako aldea dagoen, ikusteko.

Marcuse, hain zuzen, «neomarxismoaren» inspiratzaile bortitzenetakoa bera, berriztapen horretantxe ahalegindu da batez ere. Bi Mundu Gerren artean, izpiritu iraultzailea, alde batetik sozial-demokratismoak eta bestetik stalinismoak hipotekatuta geraturik, loturik eta estankaturik instituzio artean, impasse batetan ikusi zuen Marcuse-k. Lehen Gerra Mundialaren biharamunean, historiaren penduloak eskuin aldera jo du. Restaurazio eta kontserbakoikeria berrien aro guzi honetan, Marcuse, lagun batzuekin Frankfurt-eko Eskolan bildurik, erakunde haundiek zeramaten bidearen kontra errebelatu da, Teoria Kritikoa laboratzen eta izpiritu iraultzailearen suari bizi eusten ahaleginduz. Marxismoa, alderdi sozial-demokratikoan itzaltzen eta sobietarrean dogma monolitiko bilakatzen ari zen ar-

tean, Frankfurt-eko Eskola, eta bereziki Marcuse, biziro ahalegindu dira, beren trintxera akorralatutik, ia bakarrik, ahal zuten moduan, teorikoki batik bat, teoria kritiko eta iraultzaile bezala gordetzen eta desarroilatzen, langile mogimendua, sortaldean nahiz sartaldean, indarra eta autonomia galduz zihoala, bagi eta motel, azkenean stalinismoak eta faxismoak zeharo itotzeko. Marxismoak, aldi honetan, bi ofizialtasun kontrariotan erdibiturik, izpiritu kritikoaren espresio izateari utzi egin zion, Botere eta kontserbazio doktrina klasiko bat gehiago bihurtu zelarik. Marcuse-k, egoera sozial eta politiko berrian, izpiritu iraultzailearen krisi orokorrean, marxismoaren funtzio gizarte-kritikoari bizirik iraunarazteko, Marx gaztearen izkribuetara errekorritu du («Marx gaztearen deskubrimendua», dogmatismo stalinistari buru egiteko), 30gn urteetan; esistentzialismoaz baliatu da («marxismo esistentzialista», ekonomizismo sobietarrari buru egiteko), Sartre baino lehenago; Freud-en aportazioak marxismoarekin lotzen ahalegindu da («freudo-marxismoa»), W. Reich-en modura. Marxismo bizi eta kritiko bat errepresentatuz beti ere. Bere garaian isilpean galdu zen lan guzi hori (Adorno, Horkheimer, W. Reich, W. Benjamin, Marcuse...), 30/40 urte geroago «deskubrituko» da... Fruituak 68ko maiatzean ikusiko bait ziren, mogimendu berria, Marcuse-k inspiratua hein batetan, erakunde «iraultzaile» ofizialei frontalki buruz-buru ager dadinean.

1930 eta 1970 artean beti bretxan, puntan, borrokatu denak, Marcuse-k, sistema bat ez digu utzi. Beharbada ez digu ezer utzi, libertate (intelektual) gehixeago baino. Izpiritu kritikoa, periodikoki ortodoxian eta eskola-dogmatismoan erortzen dena behin eta berriro, luzaroago libertate bidetik ibiltzeko inkapaz balitz bezala (Kant ondoren eskola kantianoan, Hegel ondoren eskola hegelianoan, etab.), halako zulo batetik askatu eta berriro martxan ipini du: etorkizuna apuntatzen du, besterik ez. Zibilizazioa ohi deritzanak, «osotasun mutilatu» bat besterik ez duela adierazten, agertu digu: gizonari plazerra, gozotasuna, samurtasuna, debekatzen dizkion aingeru beltz suzko ezpataduna, paradisuko atea hersten. Marcuse, Prometeoren lekuan Narziso eta Orfeo ezarri dituen marxista bait da: plazerraren iraultzaren profeta. ■ *Joxe Azurmendi.*

## Musika eta politika

Egunkarietan irakurtu ahal izan dugu: Khomeinik musika ez du askorik maite. Debekatu egin bide du musika, profanoa bederen, Rojas Marcos-ek erregalaturiko Carlos Cano-ren diskak salbu, agian. Iran-entzat arriskutsuegia da musika, nonbait. Inkisidore berri hau tradizio zahar bati lotzen zaio.

Musikak, doinuak, muntarik bazuela bagenekien, baina ez genuen uste hainbestekoa zenik. Harritzen gaituena, batez ere musikaren garrantzi politiko hori da.

Gai honi buruz, bi aipamen itzuliko ditut. Hona lehendabizikoa:

> «Herriaren opioa da musika. Burmuinak, hartara ohitzen denean, guti barru funtzionaketa normala galdu egiten du, elkorra bilakatzen da eta gizonak bere seriotasuna galdu egiten du. Ezgauza eta parasitoa bilakatzen da».

Hona bigarrena:

> «Musika-mota berri baten sartzetik babestu beharra dago... Ezin daitezke musika-modu batzuk aldatu Estatuaren oinarrizko legeak itzulipurdikatu gabe».

Igarkizun bezala aurkezten ditugu bi esaldiok. Zein da Khomeinirena? Eta zeinena da bestea?

Gehiago luzatu gabe, irakurle presatuarentzat, eman dezagun erantzuna.

Lehenengo esaldia, Khomeinirena da, bai. Eta bigarrena, Platonena, ez gehiago eta ez gutiago, Platon filosofo handiarena berarena, Errepublikaren IV liburuan agertzen dena.

Khomeini eta Platon elkarrekin? Nola eta zergatik? Biak utopistak direlako ote? ■ *Joanes Lekerika.*

## CIEMENen IV. ihardunaldiak

Abuztuaren 16tik 23ra egin ditu CIEMENek (Gutxiengo Etniko eta Nazionalen aldeko Escarré Institutuak) bere urteroko Ihardunaldiak. Laugarren aldizkoak izan dira aurtengoak. Eta, orain artekoak bezala, Cuixà-n (Ipar Katalunian) ospatu dira.

Bestelako ekintza garrantzizkoak aurrera eraman izan ditu CIEMEN-ek: Gutxiengo Nazionalen Zinemaren astealdia (Val d'Aosta-n), Nazionalitateen kantaldia (Mallorca-n), Gutxiengo etnikoei buruzko Ihardunaldi italo-katalanak (Bartzelonan), etab. aipatzekoak dira aurten. Baina bereziki aipatzekoa da Firenze-n eratu duen Miro-ren erakustaldia: lau hilabetez iraun du; eta erakustaldiaren inguruan Kultura katalanaren beste hainbat arlo aurkeztu ahal izan dira: kanta, dantza, hitzaldiak, etab. Arrakasta handia izan du guzti honek Firenze-n. Nabarmentzekoak dira CIEMEN-ek ematen dituen argitalpenak ere: bereziki, CIEMEN izeneko aldizkaria (hiruhilabetekaria) eta «Nationalia» liburu saila. Argitaratu berria du, hain zuzen ere, sail honen laugarren liburukia, ihazko udako Ihardunaldietako hitzaldiak biltzen dituena: «Zenbait Estatu ezberdineko Autonomi moduak». País Valencià, Catalunya Principat, Illes Balears, Euskadi, Friûl, Wales, Wallonie, Jura, Iugoslaviako Errepublika, Quebec: guzti hauek dute kapitulu bana. Katalana, gaztelania, ingelesa, italiera eta frantsesa erabili dira liburu honetan, hizkuntza bezala.

Aurtengo Ihardunaldietako gaia zera izan da: «Naziotasuna: Hizkuntza, lurraldea, migrazioak». Nazio(nalitate) hauetatik aurkeztu da arazoa: Flandres, Euskal Herria, Britania, Okzitania, Països Catalans, Galizia, País Valencià-tik. Partehartzaileetatik, gehienak katalanak izan dira, baina ba ziren friuldarrak, Valdostanoak, waloniarrak, Korsikarrak, etab. ere.

Herri bakoitzak bere egun berezia izan zuen; baita Euskal Herriak ere. Joan Mari Torrealdayk aurkeztu zuen gaia, batez ere soziologiaren aldetik begiratuz. Datu ugari ere eman zuen, gaiaren hiru alderdiak (hizkuntza, lurralde, emigrazio-inmigrazioak) argitzeko. Hizlariaz gainera, Paulo Agirrebaltzategik ere parte hartu zuen astealdi osoan. Euskal Herriaren egunean bereziki parte hartu zuen Luis Núñez-ek ere. Jokin Apalategi eta Maite Idirin ere egun batez han izan ziren. Euskaldunen partehartzea nahiko egokia izan da aurten; ba zen besterik ere, hara joan nahi zuenik; baina azken unean ezinezkoa gertatu zaie nonbait.

Aurtengo gaia oso zabala zen. Eta hizlari gehienek alderdi bat bakarra azaldu zuten: hizkuntzarena batez ere. Emigrazio-inmigrazioen arazoa batez ere oso albotik ikutu zuten ia denek, edota inola ere ikutu gabe utzi zuten. Euskal Herritiko azalpenak sakondu zuen gehien alderdi hau.

Ikuspegi eta metodo aldetik ere oso ezberdinak izan ziren azalpenak: batzu historikoak, beste batzu soziologikoak, besteren bat gogoeta literariotan luzatu zen gehienbat, datuak eman beharrean. Alde honetatik ere sakabanatze handiegia izan zen.

Egun bakoitzean, zegokion Herriari buruz elkarrizketa luzeak izaten ziren; eta beste herrietako guztiek parte hartzen zuten. Hala ere, gaiaren aldetiko eta azalpenen aldetiko sakabanatze horregatik, herri ezberdinetako egoera-dinamikak elkarrekin alderatzeko aukera txikia izan zen.

Akats hauek eta guzti, Ihardunaldiak oso interesgarriak gertatu dira, Nazio ukatuen egoera-dinamikak ezagutzeko, hor lanean dabilen hainbat lagun eta militanterekin harremanak egiteko eta etorkizunean elkarrekiko lana abiatzeko.

Hain zuzen ere, Ihardunaldien ekikortasuna edo operatibitatea da lagun askoren kezkarik nagusiena. Elkarren egoera-dinamikak ezagutzetik, arazoen ezagutza hartzetik, Herri zapalduen arteko koordinazio eta elkarlanari heldu beharra dagoela ikusten: Kultura mailan eta politika mailan bereziki. Horretarako aurrera doazen projektu batzu azaldu ere egin ziren.

Kezka horiek bultzaturik, CIEMENek berak ere, gai horixe aukeratu du datorren udako Ihardunaldietarako: «Herri (nazio) ukatuen arteko elkarlan bideak» halegia.

Bukatzeko, esan beharra dago, CIEMENen barruan Euskal Herriari buruz asmo garrantzizko bat ba dela, datorren urterako. Hau da, aurten Miro-ren eta Kataluniaren inguruan egin den bezala,

datorren urtean gauza beretsua antolatu nahi da Firenze-n Euskal Artisten, Euskal Kulturaren eta Euskal Herriaren inguruan. ■ *Paulo Agirrebaltzategi.*

## Jokin Zaitegi hil zaigu

Aldizkariaren zenbaki honen azken egitekoak burutzen ari zirela heldu zaigu Jokin Zaitegi jaunaren heriotze albistea (Oñati, 1979-abuztua-17). Goian bego, urtetan eta bere bizitza osoan euskararen alde hainbeste lan egin duen gizona.

Dirudienez, euskal kultur-langile gazteenek gehiegi ezagutu ez badute ere, asko gara geure buruak haren zordun aitortzen ditugunak.

Hiru alorretan joan da, bereziki, Zaitegiren lana: 1) olerkian, 2) grekotiko euskal itzulpenetan, eta 3) «Euzko Gogoa» sortu eta aldizkariaren gorabehera guztiak gidatzen (1950-1960). Jokin Zaitegiren lana gaitza izan da, ez luma langilea izan zuelako bakarrik, baita, bere eta askoren lanak kaleratzeko, dirutan eman zituen izerdiengatik ere.

Haren idazlanik ezagunenak hauetxek ditugu, han-hemenka sakabanaturik dauden idaztiño eta artikuluak jaso gabe:

1945, Guatemala: Longfelow-ren *Ebangeline*.
1946, México: *Goldaketan*. Olertia.
México: *Sopokelen Antzerkiak* (I).
1955, Zarautz: *Bidalien Eginak*.
1958, Baiona: *Sopokelen Antzerkiak* (II).
1962, Donostia: *Platoneneko Atarian*.
Guatemala: *Berriz ere goldaketan*. Olertia.
1963, Donostia (Egan): Euripides-en *Medeia*.
1975, Arrasate: *Platon* (I): *Oturuntza, Protagora, Menon*.
1977, Arrasate: *Platon* (II): *Gorgia*.
1978, Arrasate: *Platon* (III): *Eufitron eta Sokrateren apologia*.
Arrasate: *Platon* (IV): *Kriton eta Faidon*.
1979, Arrasate: *Platon* (V): *Ipia txikia eta Alkibiada*.

Ongi irabaziak ditu Jokin Zaitegik euskaltzaleon oroitzapena eta eskerrona. Hurrengo zenbakian emango dugu Zaitegiren zenbait lanen berri zehatzago bat. ■ *Joseba Intxausti.*

## Hiru kultur gizon gutiago: Oñatibia, Zaitegi, Zarate

Hiru gizon galdu ditugu azken hilabeteotan, hiru euskaltzale, hiru kultur gizon. Euskararen alde bere bizia eman dute hirurek.

Zenbat lan eta neke euskara zabaltzen, euskara kultur tresna bihurtzen.

Hauen heriotza dela eta, etorkizunari begira jarri naiz momentu batez. Nork beteko du hauek utzitako hutsunea?

Duela 15-20 bat urte begiratu bera egin izan banu, beltz ikusiko nuen geroa, erreleborik gabe bezala. Kultur langileak eskas zirelako agian, idazle edo kultur animatzaile baten heriotzak hutsune bete-ezina utzi ohi zuen. Hainbeste eta hainbeste lan segidarik gabe gelditu ziren, animatzailearen heriotzarekin batera.

Gaur, etorkizunari so, baikorrago nago: ildo beretik langintza berean jende anitz ikusten da. Beraz, gure hiru gizonon langintzak badu jarraitzailerik eta jarraipenik. Benetan pozgarri. Eta bakoitzari berea: oraingo loraldi hau posible bada, hein on batean Oñatibia, Zaitegi eta Zarate jaunei zor zaie. ■ *Joan Altzibar.*

# Gipuzkoako Zerbitzu Publikoen Estudioaz

/ Joan Larrinaga

Ekainetik hasita, han eta hemen behin eta berriz, aurkeztu da «Estudio de los servicios públicos de Guipúzcoa / Gipuzkoako zerbitzu publikoen estudioa» deritzon ikerketa.

Bi urtetan landu du *Inventica/10* izeneko taldeak estudio hau: hogei ta hamazazpi pertsonen artean burutua eta hogei ta hiru liburuki eta Din A-4 tamainako 4.600 orrialdetan emana. Ale guti atera dituzte eta multikopiaturik. Textua espainolez dago, titulu nagusiak soilki bi hizkuntzetan.

Sei etxe eta istituziok finantziatu dute lan luze hau, alegia, *Banco Guipuzcoano, Banco Industrial de Guipúzcoa {Bankoa), Caja de Ahorros Municipal de San Sebastidn, Caja de Ahorros Provincial de Guipuzcoa, Camara Oficial de Comercio, Industria y Navegación de Guipúzcoa, Excma. Diputación de Guipúzcoa* direlakoek.

Zein da azterlan honen mamia?

Lan honen goibeaz jabetzeko, eta zenbait punturi hurbilagorik oratu orduko, aurkibide orokorra eskaintzea dugu hoberena. Hona bada:

1. AURREAZTERKETAK

1.1. Aurkezpena. Ondorioak
1.2. Gipuzkoako eskualdekapena
1.3. Demografi analisia
1.4. Demografi perspektibak
1.5.1. Ekonomi eredua
1.5.2. Ekipamenduzko standarrak

2. HITZAURREA

2.1. Udaletxe eta Diputazioaren analisi orokorra
2.2. Udaletxe eta Diputazioaren analisi orokorra. Estatistik eraskina
2.3.1. Udaletxeko pertsonalaren analisi sozio-profesionala
2.3.2. Zerbitzu erabiltzailearen iritzia; hauzo-elkarteei eginiko inkesta

3. HEZKUNTZA-SJSTEMA

3.1. Hezkuntza-politika
3.2. Inbentarioa

4. OSASUN ZERBITZUAK

4.1. Eredu teorikoaren deskripzioa
4.2. Gipuzkoako osasun-zerbitzuen inbentario eta analisia
4.3. Gipuzkoako osasun-sektorearen premien ebaluapena eta aktualizazio-plangintza

5. HEZKUNTZA FISIKOA ETA KIROLAK

5.1. Kirol politika
5.2. Inbentarioa

6. JUSTIZIA ZERBITZUAK. UDAL-ADMINISTRAZIO OROKORRA. ZERBITZU OROKORRAK

6.1. Justizia zerbitzuak. Udal-administrazioa
6.2.1. Seguritate zerbitzuak
- Polizia
- Su-itzalketa eta salbamendua

6.2.2. Osasun-zerbitzuak
- Higiene-zerbitzua
- Hilerriak
- Zaborrak

6.3.1. Hornidura zerbitzuak
- Hiltegiak
- Azokak

6.3.2. Gizarte-zerbitzuak
- Haurtzaindegiak
- Zaharren bizilekuak
- Zabarren etxea

7. OINARRIZKO AZPIEGITURA

7.1.1. Zerbitzu eta lan publikoak
— Ur-hornidura
— Saneamendua
— Bide publikoak
— Argikuntza publikoa

7.1.2. Energia
7.2. Garraioa
7.2.1. Garraioaren azpiegitura Euskal Herrian
7.2.2. Etorkizunerako proposamena eta Gipuzkoari dagokion konkrezioa
7.2.3. Jende-garraioa eta hiriko garraio publikoa

8. KULTUR ZERBITZUAK. AISI ZERBITZUAK
EKONOMI ZERBITZUAK.
HAINBAT ZERBITZU PUBLIKO

8.1.1. Kultur zerbitzuak
— Azpiegitura
— Iharduerak

8.1.2. Aisi zerbitzuak
— Jolas elkarteak
— Turismo eta hondartzak
— Zona berdeak

8.2.1. Ekonomi zerbitzuak
— Nekazaritza, Abeltzaintza eta Oihantzaintza intza sektoreak
— Hainbat sektore

8.2.2. Hainbat zerbitzu publiko
— Posta
— Telegrafoa
— Tdefonoa
— Estankuak
— Finantz-zerbitzuak
— Erlijio-azpiegitura

Estudio honek azterketa bat merezi du. Behar du. Hori da egileen gogoa ere. Sailka kritikatu beharko litzateke, puntuz puntu, azter-arloen arabera. Ezinezko bait da, bestela, pertsona bakar batek, esaterako, garraioaren, kulturaren eta demografiaren eremuak behar bezalako ezagutzapenez kritikatzea.

Nik liburukiak oro banan banan ikusiak ditut, hori bai; bai-

na ez naiz denak aztertzeko gauza: batean bakarrik geldituko naiz, 8. liburukiak, kulturari dagokion puntuan hain zuzen.

Nere iritzian, kulturaren sailari dagokionez, informazio bilketa nahikoa ahula da, eta gaiak ez du izan zor zitzaion tratamendurik. Ez dut uste estudioko lanik hoberenetakoa izanen denik. Egileen ustetan ere bada lan sakonagorik: «Sin lugar a dudas, de todos los sectores de Servicios públicos que hemos estudiado ha sido, precisamente, el de Educación Fisica y Deportes (junto con el de Sanidad) el sector en el que creemos haber profundizado más».

«Hezkuntza Fisikoa eta Kirolak» eta «Osasuna» sailak ote dira, bada, hoberenak? Ez dakit. «Garraioak» eta «Osasuna» ongi daudela entzuna dut, baina nik ezin dut frogatu ez bait naiz nor hori neurtzeko. Datozela espezialistak, eta esan diezagutela. Nik, gorago seinalatu bezala, kultura begiratu dut, eta, labur esanda, ez informazioak ez tratamenduak bete naute.

Baina goazen soseguz. Has gaitezen sail honetako aurkibidea ikustetik:

A. SERVICIOS DE CULTURA

A.1. *Infraestructuras*
 1. Bibliotecas
 2. Museos, monumentos, archivos
 3. Locales de teatro y cine, salas de exposiciones

A.2. *Actividades*
 1. Música
 2. Teatro, baile y ballet
 3. Artes plásticas
 4. Sociedades culturales
 5. Medios de comunicación social
 6. Resto de cultura

Hirureun orrialde baino gutiagotan ematen da hau guztiau. Eta gehienetan, zerrenda hutsak dira, edozen «guia»tan aurki daitezkeenak, esango nuke. Argibide argigarri bat: «Sociedades culturales» jartzen duen horretan, esaterako, «soziedade gastronomiko» guztiak datoz bata bestearen atzean, tipologiarik edo multzokatze berezirik batere gabe. Alderantziz, liburutegiez egin den azterketa interesgarria iruditzen zait oso, egitura, pertsona, ekonomia eta funtzionaketa agertzen bait dira hor.

Seinalatu bezala, edukinaren parterik nagusiena imentarioak osatzen du. Honetan dagoke lanaren balioa. Baina, kulturaren

sailean, informazio hori ere ez dago beti ongi jasorik, nere ustetan. Esate baterako, ez dut ulertzen nola ez diren sartzen euskal komunikabideak komunikabideen artean. Astekarien arten zein sartzen dela uste duzue? *Zeruko argia?* Ez, *Hoja del Lunes.* Eta hau bakarrik. *Zeruko Argia* ez da agertzen. JAKIN ez da agertzen. *Elhuyar* ez da agertzen. Eta abar. Argitaletxeak zergatik ez dira izendatzen? Ez ote «kultur zerbitzu»? Ez ote «publiko»? Bai «kultur zerbitzu» bezala eta «publiko» bezala sozietate gastronomikoak baino gehiagotzat jotzen ditut nik behintzat. Besteak beste, euskal kultufaren problematika ez ezagutu eta ez bizi duen norbaitek egina ematen du imentario honek. Kultur azterketa honetan, nabarmenegia da euskararen presentziarik eza.

Azpimarra dezagun atzera: Estudio honen meriturik handiena, informazioaren bilketa da. Informazio horren elaborapenean ahulagoa da lana. Eta oso eskasa, etorkizuna definitzerakoan. Eredu teorikorik gabe dabiltzala ematen du. «Osasun» arazoan ikusi dut baietz, badutela modelu bat. Baina kulturan, esaterako? Sail honetan, proposamen bat bakarra aurkitu dut: kulturaren etxea. Duela urte mordo bat, Frantzian Malraux-ek proposatu eta eraiki zuenaren kopia hutsa izanaz aparte, oso pobre iruditzen zait iruzkin eta ondorio guztiak orrialde pare batetan agortzea.

Eta bada besterik ere. Lanaren beraren barne-balioez gain, holako lan batetan izan ohi da bestelako baliorik ere. Bat aipatu nahi nuke hemen: lan-taldeak sortzea. Iker-taldeen premia dugu Euskal Herrian. Zentzu horretan inbertitu beharra dago. Ikerketarako jenderik badago egon, zer ikerturik ere bai. Ohitura, esperientzia, funtzionatzen jakitea, falta dira. Baina ibiltzen ibiliz ikasten bada, hemen ere berdin. Kanpotarrei lana ematen badiegu, haiekiko dependentzia ez dugu sekula hautsi ahalko. Eta, noski, hemengo taldeak ez dira horrela eratuko eta indartuko.

Ez nuke negatiboa izan nahi.

Lan honen informazio bilketa, estimagarria da benetan. Hutsune bat betetzera dator estudio hau. Zenbat aldiz kexatu garen oinarrizko informazioaren falta dela eta! Lan honen ondoren, gure ingurunea ezagutzeko arrazoi gehiago dugu orain.

Poztekoa da, bestalde, aipaturiko hutsune hori bete beharraz arduratuak ikustea zenbait finantzetxe eta istituzio. Aginte publikoa eskuratzen dugunerako geure errealitatearen datuak, hainbat eta gehien, eskura behar ditugu, eta horretarako on da holako azterketen finantziaketa segurtatzea. Finantzetxe zenbaiten aldetik herri-zerbitzu onuragarrienetakoa dateke hauxe.

***I. L.***

# CIEMEN-en IV. Ihardunaldien azken komunikatua

CIEMEN-en («Centre Internacional Escarré per a Minories Etniques i Nacionals» edo «Gutxiengo Etniko eta Nazionalen aldeko nazio-arteko Escarré Institutua») laugarren Ihardunaldiak 1979ko abuztuaren 16tik 23ra bitartean ospatu dira Cuixà-ko Abatetxean; gai hau aztertu dute: «Nazio izatea: hizkuntza, lurraldea, migrakuntzak». Hauetan parte hartu duten Euskadi, Galizia, Okzitania, Val d'Aosta, Friûl, Sardinia, Flandres, Bretainia eta Països Catalans-etako biltzarkideek jarraiko hau deklaratzen dute:

Hizkuntza eta lurraldea nazioaren bizitzan oinarrizko faktoreak dira. Edozein nazio da subirano horiek babesteko, defenditzeko eta bultzateko. Hizkuntza eta lurralde horiek ezin daitezke, beraz kondizionatu nazio bakoitzak berea duen hizkuntzaren lehentasunezko erabilera narriatuko duten ezarpenekin, edota nazioaren bizitokia den espazioaren gaineko kontrol kolektiboa eragotziz. Horrela bada, herriarena berarena ez den hizkuntzaren bat bere nazio-lurretan ofizialtzeko arauak, kasu batzutan, eta batez ere elebitasun jeneraldua, bestetan, zapalkuntz mota onar-ezinak dira.

Beste hau ere deklaratzen dute:

Norbere lurraldean bizitzeko eta Ianegiteko eskubidea herri bakoitzaren eskubide lehena da, eta, horregatik, edozein projektu ekonomiko, sozial eta politikok eskubide honen pean egon behar du. Herrien identitaterako inolaz ere mehatxu izan behar ez duten fenomeno bezala hautematen dira emigrazioa eta inmigrazioa. Beharrezko da, emigrazioa gizarte hartzailearen akordioz egitea, eta inmigrazioa, integrazio librea errazteko, eta nola segregakuntza hala asimilatze bortxatua saihesteko medioekin tratatzea.

Zera uste dute:

Beharkizun premiatsua dela nazio ukatuen artean elkarrekiko lagunkidetasuna bizkortzea. Solidaritate hau lankidetza modu konkretutan zehaztu behar da, nazio bezala desberdin diren herrien arteko berdintasuna eta justizia gailenaraziko duten lankidetza modutan, alegia. Horretarako zera eskatzen diote CIEMEN-i: Bere konpetentzien arabera, hurrengo Ihardunaldiak antolatzean gai hauxe aukera dezala: alegia, nola ezagutu eta baliatu hobeki orain arte badiren lankidetza bideak eta nola eratu bide berriak lankidetza hori biziagotzeko eta areagotzeko.

Cuixà, 1979ko abuztuaren 23an.

# "Guardasolaahantzia":poemabat

Josu *Landa*

Iazko abuztuan agertutako liburua dugu «Guardasola ahantzia» * Koldo Izagirreren hirugarren liburua. Interesgarria iruditu zait honen azterketa, alde batetik bere iluntasunak, eta bestetik bere «arruntasunak» eraginik. Azterketa honen helburua poemaren esanahia aurkitzea da —edo aurkitzen saiatzea behintzat— eta esanahi hori nola eta zernolako elementuen bidez lortzen duen aztertzea. Horretarako, azaleko maila batetik abiatzea iruditu zait logikoena; eta hortik aurrera barruko maila batetarantz jotzea, zenbait elementuren azterketaren bidez[2].

## 1. Adierazte maila

### 1.1. Poemaren egitura

1.1.1. *Azaleko egitura:* Bostehun bat bertsotako poema izanik, azaleko egitura garbi agertzen zaigula uste dut. Hiru zatitan banatuak datozkigu bertsoak; lehenengoa besteak baino piska bat handiagoa (204, 160, 145 b.). Zatiketa hau da testuan aurki dezakegun separazio-marka bakarra. Hau kenduta, ez dago inon beste markarik; ez punturik, ez kakotxik. Hala ere badira, noski, egitura orokor honen azpian dauden beste unitate txikiagoak, bai esanahi aldetik, bai forma aldetik. Ikus dezagun, beraz, hiru zati horien barruko egitura:

I

— guardasolaren deskribapena eta ohar historikoak
— guardasola motak
— guardasolaren erabilerak

**II**

— barruko gogoetak
— kanpoko adierazpenak
— egilearen pentsakizunak

III

— Casa Paulista (Garibay kalea)
— burutapenak
— irrati anuntzioa
— burutapenak
— gaiaren adierazpena

Nahiz eta oso garbi ez egon —lehen zatian batez ere—, azaleko egitura nahiko nabarmen azaltzen zaigula esan dezakegu. Azken bertsoetan adierazten zaigun gaiaren inguruan («Jose Mari tabernan ahantzitako guardasola», hain zuzen) jarritako bertso multzoa da «Guardasola ahantzia» poema, azken finean. Jatrai dezagun, bada, poema honen azterketarekin.

1.1.2. *Barruko egitura:* Behin eta berriro irakurri ondoren, poema honen barruko egitura aski nahasia dela esan behar dugu. Badugu gai nagusi bat —bukaeran ematen zaiguna—, eta honen inguruan egiten du poemak bere egitura; «zirizko egitura» (estructura de cuña) izango litzateke, beraz, alde honetatik begiratuz.

Barmko egitura aztertuz, bi planotan ematen dela esatera ausartuko nintzateke Bata, egilearen barruko gogoetak; eta bestea, gertakizun anekdotiko edo kanpokoak. Ikus dezagun nolako desarroiloa ematen zaion plano bakoitzari:

I

— pentsakizun gutxi
— deskribapen ugari; anekdotak ere bai

II

— pentsamenduak ugaritu egiten dira
— kanpoko elementu gutxi

III

— egilearen pentsamenduak dira garrantzitsuenak
— kanpoko elementu bat bakarra

Aski garbi dago lehen mailan progresio bat gertatzen dela; bigarrenean, ordea, digresio bat. Nahiko esplikaturik geldituko

litzatekeela poemaren barruko egitura uste dut tratamenduaren aldaketa honekin: lehen zatia, egileagandik kanpo gelditzen diren gauzen zatia izango litzateke, eta bigarren zatia, egilearen barruko gogoeten zatia. Barruko egiturak bi zati izango lituzke, beraz, nire ustez.

1.1.3. *Bi egituren arteko harremana:* Ikusi dugu orain arte nolakoak diren poemaren bi egiturak; aztertu beharko dugu orain nolakoak diren bien arteko harremanak. Aurretik esan behar dugu nahiko logikoki lotuak daudela; nahiz eta batek bi zati eta besteak hiru zati ukan. (Lehen aipatu ditudan planoen digresio eta progresioan oinarritzen naiz hori esateko). Lehen kapituluan gertakizun anekdotikoak eta kanpoko gauzak nagusitzen dira. Bigarrenean, anekdotak urritu egiten dira eta barruko pentsamenduak ugaritu; bi planoen ekilibrio bat ematen da. Hirugarren zatian, barruko gogoetak nagusitzen direla esan dezakegu, kanpoko gertakizunak bigarren maila batetan gelditzen direlarik. Beraz, bi egituren arteko harremanak horrela deskriba genitzake:

| | | | |
|---|---|---|---|
| *azaleko egitura:* | I ZATIA | II ZATIA | III ZATIA |
| *barruko egitura:* | anekdotak | | barruko gogoetak |

Bigarren kapitulua lehenaren eta hirugarrenaren arteko erdiko pausu bat izango litzateke.

## 1.2. Azterketa lexiko-semantikoa

Sail honetan esanahia aztertuko dugu bainan denotazio mailan bakarrik; beraz, ez gara azpiko esanahia aurkitzen saiatuko atal honetan, hori gerorako uzten bait dugu.

1.2.1. *Arlo semantikoak:* Ez ditugu hemen aipatuko, noski, poeman azaltzen diren arlo semantiko guztiak, pertinenteak direnak baizik. Ikus ditzagun zenbait arlo semantiko:

GUARDASOLA

— aterkia
— euritako
— parasola
— eguzkitakoa
— itzalkia
— parakaidas - paraxuta - jauzigailu
— guardakolpe hostiakoa

TRESNA

— gailu
— tramankulu
— hatxamarta
— traste
— herraminta

| EURIA | (GOGO - EGOERA) |
|---|---|
| — itukin | — hamorru mugagabea |
| — tantaka busti | — madarikatzen dut neure fortuna |
| — euripean | — hamorratzen ari naiz |
| — zaparradaka | —bakarrik bainago, bakarrik, bakardaderik ere gabe |
| — eraso | — aspertu nintzen |
| — ekaitzpean | —• tristea da bizitza |
| — burutik oinetaraino blai eginda | |
| — eurijasa | |

Hauek dita, nire iritziz, arlo semantikorik garrantzitsuenak. Hauen arteko harremanak geroxeago ikusiko ditugu. Tratamendu berezi bat merezi du adjetiboen arlo semantikoak (gaurdasolari dagozkionenak, noski):

| | | | |
|---|---|---|---|
| *orokorki:* | leial | *gizonezkoak:* | beltzak |
| | noble | *emakumezkoak:* | arroxak |
| | praktiko | | loradunak |
| | erabilkor | | marraztuak |
| | mesedegarri | | arinak |
| | zabalkorra | | funtsik gabekoak |
| | tinko | | |
| | gogor | | |
| | fermu | | |
| | sendo | | |
| | gotor | | |

Argi eta garbi dago guardasola eta honen inguruko hitzek osatzen dutela ia-ia poemaren lexikoa. Badago baita *«euri»* hitzaren arlo semantikoa. Interesgarria da ikustea zein erlazio dagoen eguraldi-egoeraren eta gogo-egoeraren artean. Azter dezagun hori sakonkiago.

1.2.2. *Elkarte semantikoak:* Bai intuizioz, bai positiboki, garbi azaltzen zaigu lehen aipatu dugun erlazioa: eguraldi eta gogo-egoeren artekoa. Honetaz gainera, badirudi guardasola ahazteak eragiten diola baita gogoaren egoerari. EURIA/TRISTURA, BAKARDADEA bikote horren frogatzat honako testu hau aurkezten dugu:

«euri hotz honek
euti zikin honek
busti nazan
izorra nazan» (49 or.)

«euri zikin» / «euri hotz» eta «buzti» / «izorra» oposizioen bidez bi arloen paralelismo eta kontrastea garbi gelditzen da.

1.2.3. *Paralelismoak. Kontraezarketa semantikoak:* Oso ugari ez azaldu arren, batzutan agertzen dira horrelako paralelismoak, eta nire ustez, garrantzitsuak dira espresio poetikoa aztertzerakoan. Ikus ditzagun bi bakarrik, adibide gisara. Batean, kontraezarketa bertsoaren beraren barruan gertatzen da:

«hitz bitan erran dezadan
zurezkoa edo bost kilokoa
metalezkoa edo zibilizatua
lonazkoa edo apaizena
nylonezkoa edo andregaiak
erregalatutakoa» (21 or.)

«Edo» partikula loturazko elementu bezala agertzen zaigula, lehen elementua beti guardasola mota objetibo bat besterik ez dugu. Lehenaren eta bigarrenaren arteko ezberdintasuna, azkena da. Bigarren elementua lehenengoak eragindako konnotazio bat lehena baino subjetiboagoa izatean datza; bigarrena lehenaren ebokazio bat bait da. Beste adibide bat ikus dezagun:

«gezur hutsa
erran dukezu
egia borobila
erran dizuket
ez didazu untsa ulertu
egia dela
gezurra dela» (44 or.)

Guztiz nabaria da bertso hauen paralelismoa:

— gezur hutsa erran dukezu gezurra dela
— egia borobila erran dizuket egia dela

«Gezur» / «egia» oposizioaren inguruan eraikitzen da paralelismo hori, eta honekin batera, horren indar espresiboa.

## 2. Errekurtsu literarioak. Ereduaren haustura

Sail honetan adierazte mailatik esanahi sakonera nola pasatzen den aztertuko dugu. *Hizkuntza* arruntak ematen duen ere-

dua hizkuntza literarioak nola hausten duen aztertuko dugu, beraz. Beharbada, hemen bilatu beharko genuke testu baten literaturtasuna.

### 2.1. Morfofonologi mailan

*Euskalkien eta erdararen kutsua:* Oso garrantzitsua deritzot euskalkien erabilerari poema honetan. Sarritan erabiltzen ditu, eta indar handia ematen dio honek espresioaren aldetik. Ikus ditzagun adibide batzu:

«zeinak eguraldiarekilan
egin behar zukeen
eguraldiagaz
zehazkiago erran
konfunditu edo tronpatu» (15 or.)

Hizkuntza normalizatuan «eguraldiarekin» dena, Koldok euskalkiz ematen digu (eguraldiarekilan, eguraldiagaz). Hala ere, erabilera hau askoz garbiago agertzen zaigu *euri* hitzarekin. Lau forma ezberdinetan azaltzen zaigu hitz hori, alegia: euria (25 or.), eudia (33 or.), eurixe (34 or.) eta ebia (36 or.). Badira beste zenbait kasu ere baina garrantzi gutxikoak («züziin», e.a.).

17gn orrialdean kasu oso bitxi bat ikus dezakegu. Bertso gutxitan, nahasten ditu erderazko hitzak eta euskalkien hitzak:

«hots
osea
c'est à dire
beltza izatea
beltxa
zure larrua bezala
baltza» (17-18 or.)

Interesgarria litzateke testu hau ondo aztertzea: bi hitz, esanahi berdinekoak baina forma ezberdinekoak beste hitzetan jartzen ditu:

hots — osea — c'est à dire
beltza — beltxa— baltza

*Hitz-kategorien erabilera:* Ez da erraza puntu honen azterketa. Badirudi izenak eta adjetiboak direla gehienbat erabiltzen

direnak; aditzak oso gutxitan. Askotan azaltzen direnak toki eta pertsonaia historikoen izenak dira. Pertsonaia historikoen izenak badirudi bi ardatzetan ematen direla: bata izen unibertsalena (Hegel, Louis XIV, Marx anaiak, Iesus Krist), eta bestea euskal literaturakoena (Fernando Amezketarra, Txirrita, Joanes artzaina, Lautreaumont küntia). Beste aldetik, toki-izenak Donostiaren ingurukoak dira (Parte zaharra, Paseo Nuevo, Urgull, Bulebar, Elkaon kalea, Garibay kalea —Casa Paulista—, Fermln Calbeton kalea —Jose Mari taberna—). Honekin garbi gelditzen da zein gkotan ezartzen dituen bere bertsoak poema honek.

### 2.2. Sintaxi mailan

Oso nahasia gertatzen da poema sintaxiaren aldetik. Hasieratik, ez dago batere garbi askotan non hasten diren eta non bukatzen esaldiak. Bertsoen sintetismoak batzutan ez du garbi uzten puntu hau, nahiz eta gehienetan erraz bereizi esaldien sintaxia.

Nabaritzen da baita joera bat izen edo adjetiboen zerrenda huts hutsik, loturarik gabe ematekoa: «tresna gailu hatxamarta tramankulu edo traste» (11-12 or.), «praktiko, erabilkor eta mesedegarri» (12 or.), «arroxak, loradunak, marraztuak, arinak eta funtsik gabekoak» (18 or.), «tinko gogor fermu sendo gotor» (29 or.), eta abar. Enumerazio hauek asko laguntzen diote poemari, erritmoaren aldetik batez ere.

### 2.3. Errekurtsu erretorikoak

Ikuspuntu honetatik, interesgarriak iruditzen zaizkit, batez ere, gonbarazioak eta metaforak. Gehienak guardasolari dagozkio, eta denak batera irudi-mundu bat lortzen saiatzen dira; eta, nire ustez, lortzen dute beren asmoa. Gonbarazioen aldetik, bi adibide nahiko erakusgarri gertatzen dira azterketa honen helbururako:

> «baltza unibertsitarien gibela bezala» (18 or.)
> «haritz gogorra bezain sendo» (30 or.)

Gonbarazio konbentzional hauek aparte, badira beste kasu asko gonbarazio-markarik ez dutenak, metafora eta gonbarazio arteko erdiko pausu bat. Adibidez, guardasola «parakaidas, paraxuta edo jauzigailu» batekin gonbaratzen duenean, Bada, noski, metafora ugaririk testuan zehar.

«konkupiszenziaren kupula beltza» (10 or.)
«ibilaldi erromantikoen aterpea» (10 or.) (?)
«lore beltza» (13 or.)

Nahiz eta gauza batzu aztertu gabeak izan, azterketaren zati hau bukatua bezala ematen dut, metafora eta gonbarazioen azterketa honekin.

## 3. Esanahi maila

Lehenbizi, ondo ulertu behar dugu «esanahia» esaten dugunean zer esan nahi. dugun. Lehen esanahia aztertu dugu baina adierazte mailan; esanahiaren forma aztertu dugu. Orain esanahiaren mamia aztertuko dugu, idazlan literario semiotika konnotatibo bezala hartuz. Beraz, esanahiaren zenbait maila ezberdin bereizi beharko ditugu. Bereizketa horretan sartu baino lehen gauza bat zehaztu nahiko nuke; hemen egingo dugun esanahiaren irakurketa, irakurtzeko modu bat izango da, interpretazio bat, beraz. Honek esan nahi du —idazlen literarioak esanahi asko eta irakurketa ezberdinak izan ditzakeela kontutan hartuz— nire interpretazioak ez duela bakarra izan beharrik, askoren arteko bat baizik.

### 3.1. Lehen maila: guardasola ahantzia

Lehen maila hau guztiz nabariki agertzen zaigu poeman. Aski dugu azkeneko bertsoak irakurtzea:

«Donostiako
Patte Zaharrean
Fermfn Calbetón kaleko
Joxe Mari tabernan
ahantzi nuen
ahantzi ezin nuen
guardasola» (49 or.)

Beraz, maila honetan gaiarekin batera azalduko litzaiguke esanahia. Askotan azaltzen da «guardasola ahantzia»ren aipamena testuan:

«hor nunbait ahantzia» (20 or.)
«edo zeinahi tabernatan
zintzilikatua ahazteko» (20 or.)

«konkupiszenziaren kupula beltza» (10 or.)
«ibilaldi erromantikoen aterpea» (10 or.) (?)
«lore beltza» (13 or.)

Nahiz eta gauza batzu aztertu gabeak izan, azterketaren zati hau bukatua bezala ematen dut, metafora eta gonbarazioen azterketa honekin.

## 3. Esanahi maila

Lehenbizi, ondo ulertu behar dugu «esanahia» esaten dugunean zer esan nahi. dugun. Lehen esanahia aztertu dugu baina adierazte mailan; esanahiaren forma aztertu dugu. Orain esanahiaren mamia aztertuko dugu, idazlan literario semiotika konnotatibo bezala hartuz. Beraz, esanahiaren zenbait maila ezberdin bereizi beharko ditugu. Bereizketa horretan sartu baino lehen gauza bat zehaztu nahiko nuke; hemen egingo dugun esanahiaren irakurketa, irakurtzeko modu bat izango da, interpretazio bat, beraz. Honek esan nahi du —idazlen literarioak esanahi asko eta irakurketa ezberdinak izan ditzakeela kontutan hartuz— nire interpretazioak ez duela bakarra izan beharrik, askoren arteko bat baizik.

### 3.1. Lehen maila: guardasola ahantzia

Lehen maila hau guztiz nabariki agertzen zaigu poeman. Aski dugu azkeneko bertsoak irakurtzea:

«Donostiako
Patte Zaharrean
Fermfn Calbetón kaleko
Joxe Mari tabernan
ahantzi nuen
ahantzi ezin nuen
guardasola» (49 or.)

Beraz, maila honetan gaiarekin batera azalduko litzaiguke esanahia. Askotan azaltzen da «guardasola ahantzia»ren aipamena testuan:

«hor nunbait ahantzia» (20 or.)
«edo zeinahi tabernatan
zintzilikatua ahazteko» (20 or.)

«zergatio gaur prezisamentean
ahantzi behar nuen
guardasola» (26 or.)
«ea ahantzirik ote duen
aterki transportagarria» (35 or.)
«guardasola bat galdu da» (42 or.)

Adibide hauetan ikus dezakegunez, gai bezala «guardasola ahantzia» hartzeak badu esanahirik —nahiz eta denotazio mailan eman.

### 3.2. Bigarren maila: gauza ahantzi guztien maila

Nire iritziz, hau da interpretaziorik eztabaidagarriena, gauza batengatik; ez da agertzen honen frogarik testuan. Bainan lehen esan dugun bezala, hau interpretazioen arteko interpretazio bat besterik ez da.

Zertan oinarritu naiz maila hau aurkitzeko? Bada zati bat interesgarria, nire ustez, esanahiaren maila honetarako: liburuaren eskaintza. «Anjel, Gabino, Jakue, Josetxo, Joamari, Xarra eta Irungo eta Groseko Joxanei, guardasola ahantzia bilatzen eskeini zidaten laguntza mugagabeagatik, esker onez» (7 or.). Ez dut uste guardasola arrunt bat bilatzeko hainbeste pertsonen laguntzarik behar denik. Agian bai, baina ez dut uste. Dudarik gabe, eskaintza horrek badu azpiko esanahi bat ere. Horregatik, nire ustez, gauza ahantzi guztien maila batetaz hitzegin daiteke. Beharbada zalantza egongo litzateke ikusterakoan ea non sartu beharko lkzatekeen azpiko esanahi hori, orain aztertzen ari garen maila honetan, ala beste maila abstraktuago batetan. Sar gaitezen, beraz, maila abstraktuago batetan.

### 3.3. Hirugarren maila: gauza arrunt guztien maila

«Un tren a toda velocidad es más hermoso que la Victoria de Samotraz». Futuristen esaldi famatu hau da, nire iritziz, poema honen azpiko esanahiaren giltzarria. Erramun Etxezarretak esan duen bezala, «egungo beste poema guztien desmitifikatzaile izan nahi du guardasolak» [3]. Baina desmitifikazio hau, ez du «ironia»ren bidez lortzen (Etxezarretak dioen bezala), esanahiaren maila honen bidez baizik. Orain arte, poesiaren gai nagusiak denok dakigu zeintzu izan diren, bai lirikan eta bai epikan. Gai guzti hauekin hausteko sortzen da «guardasola ahantzia». Haustura lortzeko ez da gaiaz bakarrik baliatzen, hizkuntza erabiltzeko formaz ere bai.

Beraz, hirugarren maila hau garbi dago neretzat, gauza arrunt guztien maila dela. Lehen ikusi dugu zer balio desmitifikatzaile daukan gai hain arrunt bat hartzeak. Badago testuan aipamen bat poesiaren ezpraktikotasuna salatzen duena:

> «gorringoetaraino baikaude
> opari praktikoz
> nire hamorrua mugagabea da
> kontuz
> mugagabea
> nahiz eta
> gure irudimen poetiko
> harrigarriak
> praktikotasunarekin zer ikusirik
> ez duen» (21-22 or.)

Hau da, nire ustez, poemaren azken esanahia: gauza arruntez poemak egitea, eta gauza arruntei buruz poetika berri bat egitea.

## 4. Konklusioak

4.1. Poema honen baliorik nabarmenena, nire iritziz, beste aurreko poema guztiekin hautsi nahi izatea da. Lehen aipatu dugun desmitifikazioa, beraz. Honen froga bezala, ikus dezagun zenbait testu, «Itsaso ahantzia»[4] eta «Guardasola ahantzia»ren arteko ezberdintasunak konparaturik.

| | |
|---|---|
| «zuek ez dakizue zer **den** | «bakarrik bainago |
| bakarrik egotea | bakarrik |
| bakarrik | bakardaderik ere gabe |
| bakardaderik ere gabe»[5] | zuk ez dakizu zer den» (36 or.) |

| | |
|---|---|
| «anaien ausentzia | «anaien ausentzia |
| kanilaren jario hauskorretik | betiko itukin oportunoa |
| urtzen | urtzen |
| etengabean | etengabean |
| madarikatzen dut | madarikatzen dut |
| giroa | burua |
| orroz berdeagotu **duen** | tantaka bustitzen didan |
| itsaso ahantziaren | guardasola zaharraren |
| kresala | **zuloa** |
| hitzok beteko **balute»**[B] | hitzok beteko balute» (13 or.) |

Bada beste adibide bat baina beste baterako utziko dugu, azterketa hau ez dadin gehiegi luza. Garbi dago bi liburuen artean badagoela nolabaiteko erlazio bat. Nolako erlazioa da? Ikus dezagun. Batean «ke.nilaren jario» dena bestean «itukin oportunoa» da; batean «giroa» dena bestean «burua» da; batean «orroz berdeagotu» dena bestean «tantaka busti» da; eta berdin gertatzen da aldatzen diren elementu guztiekin («itsaso ahantzia» eta «guardasola zaharra»; «kresala» eta «zuloa»). Argi eta garbi agertzen da arlo semantikoen aldaketa bat eta hauekin batera desmitifikazio tematika bat.

4.2. Desmitifikazio horren arabera, datozkigu beste elementu nabarmen guztiak «Guardasola ahantzia» poeman. Sintaxiaren erabilerak, aipaturik daukagun arlo semantikoen aldaketak, errekurtsu literarioen urritasunak, eta abarrek, honen indarra handitzen laguntzen dute.

---

[1] *Guardasola ahantzia*. Koldo IZAGIRRE. Ustela saila. Donostia, 1978.

[2] Metodologiari buruz ez dut gehiagorik esango. Gehiago sakondu nahi duenarentzat ni oinarritu naizen bibliografia emango dut. *Sagar* aldizkaria 3-12 eta 46-48 or. Taller de literatura. Bilbo, 1979ko urtarrila. *Gramatica de cdntico*, M.[a] DEL C. BOVES. Cupsa Editorial/Universidad. Madrid. *La novela de Ignacio Aldecoa: de la mimesis al simbolo*. J. M. LASAGABASTER. S.G.E.L. Madrid, 1978. Azken liburu honetatik metodologiari dagokion zatia.

[3] JAKIN aldizkaria, 134 or., 8gn. alea.

[4] *Itsaso ahantzia*. Koldo IZAGIRRE. Kriselu. Donostia, 1976.

[6] *Itsaso ahantzia* liburutik ateratako bertsoak dira honako hauek. Ez dute zenbakirik orrialdeek; honelako zehaztasunik emateko ezintasunean aurkitzen gara beraz.

# *Elsa Scheelen*

**GotzonGarate**

Irakurri berria dut Elsa Scheelen. Arrazoiez esan dute, Ibon Sarasolak eta bestek, elaberriak eta euskal literatura, aurrera joko badute, kritikaren beharrean daudela.

Berriki Bernardo Atxaga ere euskal kritikaren ezaz arrenkuratzen zen. Zoritxarrez, kritika idazlearen ideologari begira egin izan ohi da sarritan.

Neu kritika hontan Txillardegiren euskarari ohartxo batzu egitera mugatuko naiz. Egitura eta formari buruz Sarasolak eman zuen bere eritzia «Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobelagintza» saioan.

Zenbait puntutan ezik, bat nator hor azaltzen diren eritziekin. Jakingarria da saio hori, bere laburtasuna gorabehera.

## Elsa Scheelenen euskara

Txillardegik (bere gramatika lan txalogarriez gain) bide betriak ebaki ditu euskal elaberrigintzan. Euskara gaurko gizartearen eguneroko bizitzarekin konfrontatu du.

Halere, nahiko akats aurki daiteke *Elsa Scheelen* elaberrian. Gogoeta ilunetan Txillardegiren euskara bikainki dirdiratzen den bezala, eguneroko euskaran, gauzarik erraxenak esan behar diren unetan, orduantxe hain zuzen ere, irristatzen da eta laprastatzen:

«Elsa sukaldera abiatu zan ur baso bat edatera» 14 or.

Erdaraz: «Elsa se dirigió a la cocina a beber un vaso de los que se usan para agua».

Berak, ordea, besterik esan nahi zuen:

«Elsa... baso bat ur, baso bat bete ur edatera...»

Hau da, euskara gaurko mundu korapilatsu hontarako gai egin nahi izateko asmo jator hortan garaile ateratzen den bitartean, oso zalantzatan jartzen naiz ni Txillardegi iritsi ote den eguneroko euskara aspaldidanik jasoa zegoen mailara.

Egia esan, Fernando Mendizabal, Salbador Garmendia, Mikel Zarate... ez dira sartu Txillardegi murgildu den arazo sakonlatzetan. Berriz ere esan beharra dago, hor datzala Txillardegiren meritu bat.

Idazle haiek, ordea, maisuki, indarrez eta euskara beteaz idazten duten alorretan, Txillardegi moteltxoago ikusten dugu.

Has gaitezen zenbait puntu orokorrekin.

## Hitzen errepikatzea

### eta

*Elsa Scheelen-en* aurkitzen diren *eta* gehienak lapitzez azpimarratzeko pazientzia hartu dut: asko dira sobran daudenak.

Dozenaka eta dozenaka dira *eta-rekin* hasten diren esaldiak. Kontakizuna oso moteltzen dute:

«Eta zure zai huntan gosetu egin naiz, eta umorea arras galdu ere bai... Eta sukaldera joan; eta sagar bat zuritzen eta jaten hasi zan» 11 or.

Ia orialde guzttietan ditugu holako exenpluak (Ikus batez ere 13, 22, 46, 116, 119, 124, 137, 139, 145, 156, 194, 203, 204, 219, 227, 236, or.).

*Eta* honekin elaberriari ez dagokion doinu biblikoa eransten zaio:

«Eta nor da, Iauna, sinhets deçadan hura baithan? Eta erran cieçon Iesusek, eta ikussi duc hura, eta hirekin minço dena duk hura. Eta harc dio, Sinhesten diat, Iauna. Eta adora ceçan hura. Eta erran ceçan Iesusek...» Leiçar. Ioan. 9, 36-39.

### antzeman

Nahasketatxoa ikusten dugu hitz hau erabiltzerakoan. *Antzeman* eta *atzeman* (atxeman) nahastu egiten dituela dirudi.

Gogortxo gelditzen dira aditz honekin jositako esaldiak. Herriak ez ditu erabiltzen modu hortara:

«Oraingoz ez dut joaterik antzematen» (29 or.). «Begirada igeskor hura faltsu antzeman zuen» (34 or.). «Bezero asko baino legunago... antzematen zaitut» (223; ikus 14, 27, 53, 69, 79, 82, 125 or.).

Herriak, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan *antzeman* datiboarekin erabiltzen du:

«Antzeman dizut». «Begirada... hura faltsu zela antzeman zion».

Txillardegik bestetan atzeman darabil:

«Elsa egoera berriaz nagusiturik atzeman uste zuten» 73 (Ikus 182 or.).

**begiratu**

*Begiratu* beste inon entzun edo irakurri ez dudan modura erabiltzen du.

*Begiratu-k* bi esanahi ditu: a) mirar: datiboarekin. Juanitori begiratu nion; b) guardar, custoriad, etab. akusatiboarekin: begira gaitzatzu gaitzetik. Amen.

Liburu hontan, ordea, ia beti, «mirar» esateko, akusatiboa erabiltzen da:

zerua begiratu zuen 193; zerura begiratu zuen.

Elsak bere erloju ñimiñoa begiratu zuen 9. (Ikus 28, 41, 46, 113, 125 or.).

**baina**

Sarriegi erabiltzen da *baina. Ordea, ostera...* erabiliz prosa aberatsago eta zauliago litzateke.

**barrena**

Zenbait pasartetan, *barrena* hitzarekin gozagaitz loturik dauden sintagma batzu edireiten dira:

bazkarian barrena 208 / bazkal denboran

bizieran barrena 13

korridorearen barrena urrundu zan 161 / korridorean barrena

**zehar**

Berdintsu *zehar* hitzari buruz:

gauean zehar 46 / gau osoan, gau guztian

**bera**

Hitz hau batzutan trakets erabiltzen da; herriak darabilen bestaldera.

Ukkel'go bereko bezero anitz joaten zitzaion 23 / Ukkel'en bertako bezero... edo Ukkel'(e)tik ere...

Maredous'ko bereko edari-botilla bat? 195 / Maredous'en bertako...

Emakumetan beretan 27, zerbitzarietan beretan 30, begietan beretan, lenengo unetik beretik 77, bakartadea... eskaparate jendetsuen beren aurrean 110; (ikus 20, 23, 47, 53, 87, 104).

Herriak holakoetan, gehienetan *ere* erabiliko luke:

emakumetan ere... eskaparate jendetsuen aurrean ere.

Beste kasu batzu:

gaur berean 201 / gaur berton
oraintxe berean 215 / oraintxe berton
ohe ertzeraino bereraino 12 / ohe ertze ertzeraino
ohartze berean 212 / ohartu orduko
esate berean 246 / esan orduko.

Azken bi kasu hauetan, *ohartze berean* eta *ohartu orduko,* gauza bana direla esan lezake norbaitek. Baliteke, baina horko pasarteetan, euskaldun batek bigarren modura esango luke, nire ustez.

**orain**

Gipuzkoa eta Nafarroako zenbait baserritan entzun izan dudanez, *orain, oraindik* eta abar, orainaldirako bakarrik erabiltzen dituzte. Fernando Mendizabalek (eta beste batzuek) oso ederki betetzen du gaur egun ere bizirik dagoen lege hau. Axular, ordea, hastandu egiten da bide hontatik. Adibide batzu:

Orain bere buruaz ikasia zekien / Orduan bere buruaz ikasia zekien (ikus 157).

Hitzak aidean zeuden oraindik 18 / ...aidean zeuden artean.

Beste xehetasun bat. Gazteleraz «todavia» moduzko adberbio bezala erabiltzen da. Euskaraz, ordea, «oraindik» hitzak ez du berez holako sentidurik:

oraindik ere uzkurrago eta etxekoiago 111 / are uzkurrago... (ikus 124, 143, 158, 187, 190, 203). Gauza bera esan behar da *oraingo* (100) eta *oraingoan* (232, 241) hitzei buruz.

## Zabartxo dauden beste esaldi batzu

Urratzeko zai 133 / uratu zai, noiz urratuko zai

*Urratzeko* zai aktibo da. Pasarteak, ordea, pasibotasuna eskatzen du.

gidoiña helduta 43 / gidoiñari helduta

aldameneko hauzokoa 114 / eguzkitan egonean 118

Lehenbiziko esaldia, batik bat, euskalgaitz iruditzen zait.

Esther'en haragizkoak ziran 26 / odolekoak, odol berekoak

aurtiki 47: *arrojar,* baina ez vomitar, hor erabiltzen den bezala.

iraunduko 98 / iraungo

ez da sekula santan itxaron behar emakume bat 236 / ...itxaron behar emakume bati

esan zuen frantsesera kaskarrean 97 / frantsesera kaskarrez

hemen bizi zaitezke 94 / hemen bai ongi bizi zaitezkeela

gora igotzekotan egon zan zalantzan 162 /?

Elsa, hemeretzi edo hogei (urte) dituzula ematen du 104 / ... dituzula ematen duzu

hirurogeietan laister abiatuta 68 / hirurogetaka urte laster egingo zituen (Ikus 23, 44, 68, 161)

platerak ia osorik bihurtu zituen atzera 208 / platerak ia ezer jan gabe bihurtu zituen atzera. Besteak hauxe esan nahi du: deolvió los platos casi sin rotura alguna.

Hire «senar» hori Flandre'ko kastako seme da 67 / ...dun

Luc'en arnasa beroak ez baitzion bizkarra iristen 13 / ...ez zitzaion bizkarrera iristen.

Luc'ek maite duen Antwerpe'ko kaietako tegiek 26 / ... dituen

(nik) pairatzen duten 104 / Toki askotan halaxe esaten du herriak. Pertsonak ez nahasteko, ordea, hobe: dudan.

### bat

Baserrietan, erdaraz ez dakitenekin hitz eginez gero, *bat* gure aldean (bost urteko Filologia karrera egin dugunon aldean) bakanago erabiltzen dutela kontura gaitezke; batez ere beste numeral bati kontrajartzeko, alegia; indefinido bezala gutxiagotan.

ez zuen halako aukera bat galduko 153 / halako aukera
ar bat behar dudalakoan 178 / arra behar dudalakoan
baso bat eta beste bat 46 / bat eta bestea

**hau**

*Hau, hunen...* gehiegitxo ikusten ditugu.

Vanhamme poztu egin zan hauek Elsa'ren aurrean entzunda 94; eta hunen begi nabar illunek... asaldatu zuten. Baina hunek bere zakarreriari eusten zion xamurraldietan; eta huni esker, Elsak ez zuen berandu arte ezer nabaitu 24

kolpe latz bat izan zan hau Pierre'rentzat 218 / kolpe latza Pierre'rentzat

Eta hau gizon batengan nabaitzea 175

## Esaldi gogortxoak

ohe-aurrea zan 58 / ohera aurrekoa zan. *ohe aurrea:* la parte delantera de la cama, baina liburuan besterik esan nahi da: neskatxaren dantza izorratzen hasteko prestaketa zela.

etxea polliki polliki antolatuz joatea erabaki zuen 73 / etxea polliki polliki antolatzea erabaki zuen

buruko oiñaze ikaragarriaz minduta 46 / buruko min ikaragarriekin

Elsa'k arreta guztiz at 21 / ?

De Potter jaunari buruz, maiz pentsatu dut 239 / Zer pentsatu? Hobeto: De Potter jaunari buruz maiz egin izan dut gogoeta... pentsatzen jarri naiz...

hitz asko, bai, motorraren soiñuan nahasirik 247 / ... motorraren soinuarekin (soinuaz?) nahasirik

afarira joan ohi zan 44 / afaltzera...

atzera eta aurrera asi ziran ezin egonak eraginik 186 / ... ziran ezin egonda, ezin egonez

esankizuna, dana dala, esanik zegoen 200 / halere, esanak esan

sendimendurik gabeko atsegiñik gabe ez dago 215 / ?

ezkonduak eta aita-familiako 93 /?

gauza askoren gabea 118 / ... askoren hutsunea, hutsa... *gabe gelditu naiz* (eta antzekoak) esan ohi da. *Gabe-ren* aurretik sustantiboak inesiboan erabiltzen direnik ez dut uste.

baina hortara entzun zuenean 37 / zenbait tokitan *hortara*, «por lo tanto» adierazteko erabiltzen dute.

gogorik batere gabe oheko atsegin hits hartara... zer esan? 118 / hartaz... zer esan?

Elsaren mundua... hestutu egiten zitzaion 128 / Elsari

Gero eta jende gutxiagorekin hitzegiten zuen: «Hektos»eneko irakasleak, eta etxe ondoko dendari batzuk 128 / eneko irakasleekin... eta ... batzu(e)kin

gizona goseak hikzen dan herrietan 138 / goseak hiltzen dagoen, goseak hiltzen duen...

Pierrek, tristurak gainditurik gogoratzen zan... begi nabar illun maitatu haietaz, doillor eta kupidagabe, behin ere baino ederrago eta urrutiago... 178

a) Pierre gogoratzen zan

b) ... urrutiago zeuden haietaz. Bestela ba dirudi, *doillor eta kupidagabe* Pierre bera dela.

Joskera zaila dago esaldi hontan:

Pâquerettes'ko gela epelean emakume mikaztu bat eta lehengo aldiz gizon on bat, gizanegarraren eresia entzun zitekean, etsia, gaueko illuntasunean bakardadean ari». 179.

Non dago *emakume eta gizon* hoien aditza?

Elaberi hontan esaldi asko bukatzen dira *ari* hitzarekin, elipsis eginez.

Bestalde Txillardcgik *bide,* norberaren eritzia adierazteko erabiltzen du:

«ezagutzen bide zituen» 134 (ikus passim). Positiboa izan daiteke.

«pareta lanpara bati so pausatu zitzaion begirada Elsa'ri 53 /

Elsa'ren zorion lodi hura... igesi zijoakiola nabaitzen zuen / Elsa'k

Gizonek ez dute inoiz neurtuko nere huntan emakume batek jasaten duen kolpe latza norainokoa dan... 80 / Nola elkartu *nere* eta *batek?*

Batzutan, esaldiaren erritmoak beste paralelismoa eskatuko luke:

legea ez da sortu gizonen zerbitzuko, paperen laguntzaile bazik 122 / ... paperei laguntzeko baizik

hizkuntzaz... giroaz, alde guztietatik hitz batez 26 /

sinistu eziña zuri izanik ere 96 / sinesgaitz bazaizu ere

edozein gizonen besoetara nere burua aurtikitzeko zoratzen naizela iruditzen zaie 103 / zoratzen nagoela

besoetara burua aurtiki?

Ba zeukan aurrerakoan gauetan zer irakurririk 48 / Handik aurrerako gauetan ba zeukan... edo aurrera ba zeukan gauetan...

Luc'en muntatutako «Moderne» garajeak... 15/ Luc'ek

ez zan sekula entzun «Jaungoiko» hitza birau egiteko ezpada 38 / ezpazen

temezortzi-hogei urtekoa 58 / Halaxe erabiltzen dute Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaiko baserrietan 93 / Beste toki guztietan *urtetakoa* erabilzen da elaberri hontan, mugagabetasuna kontuan harturik.

aukera hura baliatu 99 / aukera hartaz baliatu

eguraldia zoragarri mamitu illuntzerakoan / 9 3 jarri

joera guzietarako litxarkeriarik 93 / aukera guztietako

Luc'en partez horrelakorik espero ez zuelarik 18 / Luc'engandik.

batzutan jotzeko gogoa nuen 65 / izaten nuen; jotzeko gogoa ematen zidan

Askotan... afaltzeko gogo haundirik ez zuen / ez zuen izaten.

giroa ondurik zegoela igarri zuen 200 / igarri zion

eta gero, uste zuen bederen 217 / eta gero, halaxe uste zuen bederen

Nornahi izanik ere Elsak ez zuen ideki nahi 234 / Iñori ere ez zion Elsak ideki nahi

gogoz ferekatzen zuen... azkura 236 /

Nafarroa eta Gipuzkoako zenbait baserritan (bestetan ez) pertsonaz mintzo direla *azala* erabiltzen dute. *Larrua,* ostera, abere eta beste animalientzat bakarrik.

*Elsa Scheelen* hontan pertsonarentzat ere. Axularrek ere (Ikus 34, 37, 179, 181).

emaizkidazu hamar miñutu 51 / utzi...

Zergatik ez beretara jo? 53 / berak jo?

heure etxe propioa 68 / heure esanez gero, propioa erantsi?

Goazen piska bat alaitzera 132 / Norbait alaitzera ala alai(tu) gaitezen piska bat? Bigarrena eskatzen du pasarteak.

ez baitzuen ezer ulertu Elsak esandakoaz 134 / Erdal usaina aditzen diot esaldi honi: Elsak esandakorik ezer ez baitzuen ulertu.

oker zegoen, jeixterakoan kokatu izan balitz bezela 209 / kokatu ala trabatu?

agiriko harriz eraikitako hesi bat 92 / harri biziz

Elsak ez zuen ezer besterik entzun 9 / ez zuen besterik ezer (besterik deus) entzun.

Iñor ez aspertzeko, bukatuegingo dut.

## Azken hitzak

Goraxeago esan dugunez, Txillardegi izan da euskara mendua gizarte modernoaren enborrean txertatzen lehenetakoa.

Elaberri hontan ere urrats haundia eman du. Bai kanpoko, naturalezaren edo paisajearen deskripzioei, bai eta arima barrutiko giro ubelak azaltzeari beldurrik gabe ekin dio. Hurrengo idazleentzat bidea ebakitzen ihardun du bipilki.

Txillardegiren beste alderdi positiboa: gehien gehienetan joskeraren (sintaxis) legeak oso ederki betetzen ditu.

Konparaketa bat egin daiteke: Angel Lertxundiren edo Ramon Saizarbitoriaren euskara naturalago, eguneroko biziari lotuago da. Txillardegiren euskara joriago, aberatsago da. Batzutan euskararen norma ez ezik, euskararen sistema bera ere lardaskatu arren, euskal gramatikak eskaintzen dituen posibilitateez baliatzen antzetsu ikusten dugu Txillardegi.

***G. G.***

## Euskal liburuak

OÑATIBIA, Yon: **Erriaren EUSKERA BATUA irrati-bidez. 1'go. ikastaroa / Metodo de EUSKERA UNIFICADO radiofonico. 1.° curso.** Edili argitaldaria, Donostia, 1979, 278 or. 15 x 21 zm.

Hona hemen Jon Oñatibia langile porrokatua zenaren euskara-metodoa. Lehen *Irrati bidez* zuen izena. Orain beste hau, baina haren 10. argitalpena besterik ez da. Argitalpen honen eta aurrekoen merituetarik bat, berrinprimaketa hutsa ez baino berredizioa izatean datza, hots, argitalpen bakoitzean aldatuz eta egokituz joan dela liburua. Horrela, azken urte hauetan euskara batura begirako hitzik egokienak aukeratu bide ditu. Baina aldaketa honek liburuaren titulua zentzu horretan aldatzeko eskubiderik ematen duenik ez dut uste. Liburuaren izenburu hori engainagarria da. <*Herriaren*» euskara baturik ez dago, eta liburu hortako euskara ez da

«batua» deitzen den hori. Erdarazko izenburuak zer esan nahi du: *Metodo de euskera unificado?* Euskaltzaindiaren ortografi arauak onartzen ez dituen metodoa (egileak berak espreski aitortzen baitu hori sarreran), gaur egun bederen, ez teknikazki eta ez herri mailan jotzen da batutzat. «Euskara batuaren» arrakastaz eta izen onaz baliatu nahi izan da; liburuari izenburu hori jarri diona, baina produktua bera ez da du arau horietara aldatu. Euskara batuari *implicite* lore bat botatzea da hori, baina inolaz ere ez erosleari mesederik egitea.

## Erdal liburuak Euskal Herriaz

BELTZA: **Euskadi 1984.** Txertoa argitaldaria, Donostia, 1979, 136 or. 13 x 19'5 zm.

Hauek dira liburu honen kapitulu nagusiak: viaje por los pastos de altura. — Una excursión a Europa. — Crónica de una noche.

Beltzaren pentsaeraten berri jakin nahi duenak, aukera ona du hemen. Euskadiren egoeraz eta etorkizunaz (eta hor iraultzaz, borrokaz, alderdiez, euskaraz, eta abarrez) Beltzaren eritzien imentario on bat agertzen da liburu honetako orrialdeetan, gaztelaniaz zein euskaraz idatziak.

## Jaso ditugu

IZAGIRRE, Koldo: **Gauzetan.** Ustela saila, Donostia, 1979, 72 or. 11 x 19'5 zm.

GONZALEZ GARCIA, A., CALVO SERRALLER, F., MARCHAIN FIZ, S.: **Escritos de Arte de Vanguardia** 1900/1945. Ediciones Turner/Fundación F. Orbegozo, Madrid, 1979, 462 or., 17 x 24 zm.

PAZ, AMSCHEL: **Una leve ametralladora en** la **sangre** (Relatos), Madrid, 1975, 154 or. 13 x 21 zm.

ASKOREN ARTEAN: Diccionario **de Gomercio Exterior.** Banco de Vizcaya. Bilbao, 1979, 174 or. 15 x 21 zm.

# Gordailu eta euskal pedagogia

Jaxinto F. Setien

Gaur egun, Ikastola bere xokotik plazaratu eta Euskadiko Eskola Nazionala bilakatze bidean abiatu delarik, JAKIN aldizkarirako artikulu bat eskatu zait Gordailu-ren izateaz: helburu, arazo... etorkizunaren berri zer eta nola ikusten ote dugun aditzera emanaz. Ezin uka horretara, eta esan gabe doa, biziki gogotik eskaintzen dudala lantxo edo zirriborro hau.

## 1. — Lehen urratsak

Euskal eskola egiteko, faktore bi ekarri zituen Ikastolak hasera haseratik: bata, laburki esanaz, euskarazko eskola, eta pedagogia berri (ekintzaile) baten ukitu berezia bestea. Aski izan zuen Ikastolak errealitate hau eskaintzea, Donostia eta Bilboko hirietatik herrietara salto egin eta egungo ikastola multzoaren hazia erein edo hauen oinarria finkatzeko. Ez dugu horretarako 36ko gerla aurretik alor honetan egin zen joaldia gutxietsi nahi inola, baina bereziki zerbait aipatzekoz, E. Zipitria eta andereño taldeak gerla ondoan burutu ahalegina nahiz ausartzia garbiro utzi beharko litzateke. Hauei esker, egungo ikastolaren mugimendua zimendarri sendoan finkaturik geratu bait zen.

Dena den, oroit, 63-64 urtearen inguru hasten dela prozesu hau, Hernani, Elgoibar, Algorta, Errenderia, Lazkano, Andoain,

Pasaia, Donostiako Lizeo zaharra etabarren sortzearekin batera. Eta gauza jakina, ikastola berriak han hemenka sortu ahala, hasi zirela ere elkarren berri jakin, elkar babestu eta koordinatzeko herri bakoitzeko ordezkarien bilkurak antolatzen. Fenomeno honen parean, oroit baita, nola sortzen den andereñoen mugimendua: ikastola barneko lanaren esperientziak elkarrekin trukatzeko eta ikastaldi zenbait antolatuaz beren burua egokiago prestatzeko.

## 2. — Gordailu, Irakasle Elkarte

Hori horrela, aski ongi joan ziren gauzak aldi batetan. Orduan abiatu ziren martxan «Udalekuak» gure haurren elkar ezagutze eta atsedenerako, eta «Erresidentzia» deitu andereñogaien egoitza delakoa. Beraz, begien bistan zen edonorentzat ikastolen errealitatea eta guztion buru-bihotzetan zegoen ere tolerantzi egoera batetara heldurik ginelako ustea.

Heltzen dira, honetan, Oltra Molto gobernadorea bere ausartzia guztiz, Euskal Herrian denok ezagun ditugun 68 urtearen udako gertaera bihurriak, eta ondorioz, Gipuzkoako Ikastolen Federazioa Elizaren babesean: erlijioa bai eta euskara batua ez haizearen lau aldetara aldarrikatuz. Sinestea ere gaitz zaigu orain. Hobe alafede!

Horra bada, zein giro eta ingurumenetan andereñoen mugimendua Irakasle Elkarte bilakatu zen eta Gordailu deituraz (Bergara kalean) bulegoa antolatu. Irakasleok, aspaldidanik genituen geure bilkura edo ikastaldietan erlijioaren irakaskuntzaz kriterioak argiturik; andereñoa ez da katekista, izpiritu-baloreetan finkatu behar da haurraren hezketa, baina fedearen lantzea kristau komunitatearen baitan datza eta horrelakoak.

Bestalde, 68ko Urrian burutu zuen Euskaltzaindiak Arantzatzuko Biltzarrea «euskara batuaren arazoaz». Esan beharrik, berehalako batetan hartu zuela Gordailuk batasunaren bidea. Gainera, Gordailu edo Irakasleen Elkartea ez zen soilki Gipuzkoara mugatzen: Araba, Bizkaia eta Nafarroa elkarrekin harremanetan, ausarki ari ziren pedagogia eta teknika berriak ikastolarentzat lantzen.

Frango poliki, ez da dudarik, abiatu zen Gordailu bere egitekoari atxikiaz eta ekintzak finkatuaz. Hala, Gordailu-k *bulegoa* sortu zuen lehenik: bilkurak egiteko, andereñoen fitxategi, biblioteka, multikopia eta aldizkari koxkor bat hilean behin-edo

argitara ematen zelarik. Ez zen baimenik posible, salatu gintuzten eta ezin gehiago argitara eman, hartan amaitu zen haren bizia. Hala ere, urte pare bat eutsi ahal izan genion.

*Haurride,* gero: ahal zen material pedagogikorik egokienaz horniturik denda bat jarri zuen martxan, bereziki ikastolen zerbitzu eta eragiteko. Askoz konkretuago nonbait honen ekintza, Gordailu (bulegoa, esan nahi da) baino hobekiago defendatu da Haurride.

Hastapenetatik, esarvdugu lehen, euskara edo euskal hizkuntzaz aparte, pedagogia ekintzailea (ekintza-pedagogia) ukan dutela ikastolek elementurik bereziena. Eta hain xuxen horretan ahalegindu da Gordailu etengabean, nahiz bere ekintza handiki mugatua izan den.

**3. — Arazo nagusienak**

Horregatik, atzerat begiraturik eta balantze bat egin behar bagenu orain, zenbait elementu positiboren alboan, beste hainbat gute arteko arazo ere (eztabaida, sokatira nahiz eten) sartu beharko genuke kontadurian. Eta barneko oztopoak aski ez direla, kanpotikoak berriz, hortik honakoak! Gobernuaren aldetik: etxe-miraketa (Gordailu, hiru-lau alditan poliziak arakatua izan da), liburuak argitara emateko zentsura eta zailtasun nekagarriak, edo ikastaldiak antolatzeko oztopoa baizik ez. Zer egin orduan? Elizarengana jo behar, hau bait zen babes apur bat eman zezakeen erakundea, eta Seminario, Ikastetxe edo beste leku egokirik zeukana. Baina bai zera! Zenbait elizgizonen oztopoak ez ziren batere arinago izan. Nahiko tristea izan zen, adibidez, 71 urtearen Udako Ikastaldiaz Loiolako buruzagiak harturiko erabakia: «Jakinarazten dizuegu zuen Ikastaroak Elizaren Ikastola Elkartearekin zer ikusirik ez duenez, ez dezuela Loiolan tokirik izango». Eta Iruineko Seminarioan gertatua gero: gipuzkoar elizgizon batzuen eraginez 300 irakaslerentzat ikastaldia hastera gindoazelarik, Nafarroako gobernadorearen debekua heldu zitzaigunean. Eta denok etxera, beste erremediorik gabe. Beharrik, Larrauri apezpikuaren jokabidea besterik izan zela.

Halatan bada, bistan da ez dela erraza izan geure egoera, Euskal Herriarena izan ez den bezalaxe joan den urte multzo horretan: ideologi joera ezberdinak gure artean, mila susmo eta gehiago, politika nahiz pedagogi jokabide berezien, etabarren ondorioz. Halabaina, kondizionamendu guztiok gaindituko zituen

Gordailu-k eta hein batetan, gainditu ahal izan ditu, funtsean jasan behar ukan duen handiena, ekonomikoa, bere gain eraman behar izan ez bazuen. Honetan, euskal kultur erakunde oro pareko gertatu gara.

Azkenik, beste arazo bat, gaur egun bereziki seinalatu behar dena: ikastolaren masifikatzea. Halaxe deitzen da gure artean, baina ez da ikastolak sobera handitu edo ugaldu direlako gertatu den fenomenoa, baizik-eta ikastolak hastapenetik markatu linea pedagogikoan sakontzeke era desegokian integratu den eta jarraitzen duen irakasle jendeari buruz ari den arazoa adierazt nahi da. Hala ere, hedatukiago desarroilatu beharko litzateke puntu hau.

## 4. — Gordailuren ekintza berezienak

Dena dela, gure ekintzak (Haurride, material pedagogikoaren zerbitzuaz aparte) bi adar eragin ditu bere gutxian: Ikastaldiak eta Editoriala.

IKASTALDIAK. Pedagogia ekintzailea oinarritzat harturik, irakasleen prestakuntzak garrantzi handia duela uste izan dugu beti. Pedagogia eragile bat sortu beharra garbiro ikusten zen, eta hein handi batecan, oraino egiteke dagoela esan behar. Gainera gaur egun, gcrago aipatu fenomenoa guztiz nabaria da: ikastolen masifikatzea alegia. Ohar eskola estatalen barne sortzen ari den mugimendua edo euskal eskolarat bidean ematen ari urratsak; Ikastola-Eskola Nazionalaren arteko dikotomia lotsagabe hori urratzen doala ere, bederen teorian; eta halaber, herriaren eskakizunak nahiz partaidetza ez doazela inolako moduan beheititzen.

Horregatik, masifikatzearen arazoa konpontzea, urte multzo batetan behintzat, ez daiteke hain gauza erraza izango zaigunik pentsa. Eta horrela, begien bistan da, irakasle talde koxkor eta dinamiko batzuen premia gorria areagotu egin dela, biziki areagotu gainera. Zernahi mintegi eta urtean zeharreko ikastaldi laburrak (asteburuetan-edo) antolatzeak eta Udako Pedagogi Ihardunaldiek badute garrantzirik asko memento honetan.

Gordailu-k biltzen zuen bere inguru, 72ko udako ikastaldiak arte, Ikastoletako irakasle multzorik handiena. Orduan sortu zen «Loiolako Taldea» Gordailu-tik aldendurik, eta «Elkartea» berriz, hura itzali zenean. Honek biltzen du egun Ikastoletako irakasle gehiengoa, eta dudarik gabe Gordailu-k baino hobekiago

zaintzen irakasleen eskubideak, Ikastola ezberdinen harreman nahiz antolamendua, etab. Ez du hala ere, lan gaitzagoa denez noski, halako eraginik pedagogiaren alorrean erakusten.

Besteak beste, «Euskadiko Pedagogi Ihardunaldiak» deitu udako ikastaldien bitartez, Adarra-Bide-Gordailu elkarrekin lankidetzan, pentsa ere ezineko hedadura hartzen ari da euskal irakaskuntzaren planteamendua bizpahiru urteotan. Bilbon, Lejoako Unibertsitatean muntatu ziren 77ko udan lehen ihardunaldiak (1.200 irakasle); Gasteizko Seminarioan iaz (2.000 irakasle inguru), eta Iruinean izanen dira heldu den udan. Ezin gehiagoko garrantzia dutela ihardunaldiok uste du Gordailu-k, eta beraz, ahalegin guztiz jokatuko du hauek, dagokien arrakasta ukan dezaten. Mugimendu berria da, gaztea, batipat Araba eta Nafarroatik datorrena, eta zinez eragitea merezi duen mugimendua, beti ere urtean zeharreko lan-sail berezien dinamikan finkatu behar delarik.

EDITORIALA. Alferreko gauza da ikasle-irakasleen egun oroko lana nahiz esperientzia, eta berebat, ikastaldi nahiz mintegien emaitza, ez bada liburu eta material batetan gauzatzen. Hots, ekipo koxkor hauen lana ikastola guztietara hedatzeko modua egiten ez bada. Eta lan hau du hain xuxen gure editorialak bere egiteko galanta. Nolanahi ere, joan diren urte zailetan zenbait idatziren zerbitzua haurrentzat nahiz irakasleentzat multikopiaz eta ahal den bezala burutu dugu. Bestalde, libumgintzaren atal zenbait ere landu da:

— *Hiztegiak:* Ikastola hiztegia, Idazketa hiztegia, Nire lehen hitzak...
— *Pedagogi-Metodologi liburuak:* Berezko irakurpide,...
— *Eskolaurrea:* Mintza, Lehen irudi-Lehen hitzak, Matematika hastapenak, etab.
— *O.H.O.-E.G.B.:* Irakurgai, ikasliburu, esperientziak...
— *Ikastola Liburutegia:* monografien bilduma lau sailetan (Natur-Gizarte zientziak, H.ª eta Geografia).
— *Mapak:* Eskualdeak, Mendi eta Hibaiak, Komunikabideak...

Azkenik, ordea, egoera politikoaren aldakuntza delako, eta editorial titulua lorturik dugulako ere bai, gauzak alderdi horretatik asko erraztu dira, eta, salbu ekonomiaren bidea, gure etorkizuna aski finkaturik ageri da egungo egunean: ikastaldiak eta editoriala, baina aipatu dugun zentzuarekin.

Ekintza bikoitza, eta helburu bakarraren zerbitzutan, pedagogia ekintzailearen eragile izateko asmotan alegia. Lan-sail bizkor batzuetan irakasleen gaitasuna segurtatzea, eta liburu nahiz material egokien bat argitara ematea litzateke memento honetan geure xedea, beti ere haurra lan pertsonalizatu batetara laguntzeko, haurra bera ikertzaile koxkor bat bilakatzen delarik. Eta honetan garbiro adierazi nahi dugu: gure bidea ez dela material entziklopediko bat sortzea haurrak jakintza kaskoan mekanikoki metatu eta sar dezan, baizik-eta mailaz maila lanerako irakurgai eta kontsuka liburutegi txukun bat etorkizuneko ikastola edo eskolentzat moldatzea nahiz eragitea. Horretan da dena. Eta jakina, euskaraz eta Euskal Herriaren ikuspegitik emana.

## Arrantzaren hauzia

Zuzendari jauna,

Irakurri dut azkenengo JAKINen agertzen den *Arrantza Iparraldean* artikulua. Ez da nire asmoa idazlan horreri kritikarik egitea. Lizentzieri buruz agertzen diren huts batzu zuzentzera natorkizu bakarrik, eta, bide batez, irakurle interesatuari informazioa gai honetaz osotzera eta gaurkotzera, baldin karta hau argitaragarria dela badetitzazu.

1. Antxotarako 160 lizentzia eman ditu aurten EEEk. Bizkaia eta Gipuzkoako 250 ontzientzako, 112 banandu ahal izan dira. (Ia-ia bat bientzako). Lizentzia honeek, gainera, numerodunak dira, izen gabeak. Honela, lizentzia bera ontzi batetik bestera aldatu liteke bestelako problema batik. Erraztasun honek asko arindu du arazoa. Haugaitik, kostera edo kanpaina honetan ez da, gaurrarte, ezelango etagozpenik edo larritasunik sufritu lan egiteko, faktore meteorologikoetatik sortu direnak izan ezik, eta arrainaren urritasunetik datozenetatik aparte.

2. Atunarentzako, edo prezezkiago esanda, atunkideentzako (hegaluzea ala hegalaburra) ez da lizentziarik egundo ere existitu, arrain iheskor hau biziki migratoriotzat kontsideratua izanik, ez baita mugagaia Bruselasen begietan. Bai, ordea, hegaluzea harrapatzeko erabili behar den beita edo karnata bizia, beita deitzen den hori, dakikezunez, antxoa ttikia edo kumea besterik ez baita, ontzi batruko bizitegietan bizirik gordetzen dena, eta «egina» (harrapatua) izan den Komunidadeko uretatik oso urrunean hegaluzeari jaten emango zaiona.

1977an 60 lizentzia bakarrik eman ziren karnata bizia egiteko. 1978an, aldiz, antxoatarako eman ziren 140 lizentziak balio izan zuten, eta aurten ere antxoatarako eman diren 160 lizentziak balioko dute, erabagita dagoenez.

Esan behar da puntu honetan, Donibandar hegalaburzaleak, gure al-

deko itsasbasterretan egiten dutela sarritan heuren karnata (kasu honetan txitxarro kumea izan ohi da), ezelango traba barik, noski.

3. Azkenik, lebatz eta besiguari dagokionez, ihaz 60 lizentzia eman ziren, bai, baina artikuluan dioanaren alderantziz, Bermeoko legazaleek ez zuten bat ere eskuratu. Denak Hondarrabiako legazaleen artean banandu ziren, Madrileko Administrazioaren aginduz.

Aurten oraindino 10 lizentzia gutxiago eman du Bruselasek, hau da, 50 bakarrik, eta ihaz bezela, gatazka haundi bat sortu da Hondarrabi eta Bermeotarren artean, baina, azkenean, denak aurtengoz Hondarrabitarren eskuetan geldituko dira, Bermeotarren arazoa konpontzeko Bruselasetik tratu hobe baten zai.

Guzti honen konklusio gisa esan dezakegu Ipar eta Hego arteko arraintzaleen ezin-ikusia guztiz lasaitu dela azken urtean antxoa eta atunetako sektorean, eta elkarganako erlazio normal batetara heltzen doazela. Haatik, ez da berdin gertatzen legazaleen artean, gatazka, batez ere, Donibandar eta Hondarrabitarren artean dagoelarik. Eta ezin da esan kasu honetan Donibandarrena denik errua.

Beste barik, hartu, Jauna, nire agurrik zintzoena.

**Antonio Perez Bilbao**

## Piarres Ehuiatei jaunari ihardespena

JAKIN lO.ean «Iparraldeko euskal idazleak, gaur» izenburuz egin duzun lanean eman dituzun eritzi eta xifra batzu hauzitan jartzera natorkizu. Baina horretara pasa aurretik, Iparraldeko euskal idazleez egin diguzun imentarioagatik zorionak eman nahi dizkizut.

Baina goazen harira.

Bistan da, eta behin eta berriz aitortzen duzu, «Euskal Idazleak, Gaur» nere liburua begien aurrean duzularik burutu duzula zure idazlan hori. Eta Iparraldeko idazkintzaren bizitasuna frogatu nahian zabiltzanez, nik liburu horretan ematen dudan ipar idazle-kopuruarekin ez zatoz bat. Gutiegi aipatzen ditut, zure ustetan. Izan ere, nik hogei bat haintzat hartzen ditudan bitartean, zuk larogeitik gora kontsideratzen dituzu idazle. Erizpide kontua da hori, badakizu. Nik, «sensu stricto», metodologia jakin bat jarraituz, jokatu dut, eta zuk oso zabal, nere ustez zabalegi, erizpide maximalistaz. «Euskal Idazleak, Gaur» liburuaren 70 orrialdean aipatzen dudanez, hiru erizpide gurutzatzen ditut, idazlea nor den erabakitzeko. Zuretzat, ostera, 25 artikulu idaztea aski da nonbait idazletzat jo ahal izateko. Zure erizpide horrekin, bistan denez, askoz ere idazle gehiago ateratzen zaizkigu.

Eztabaidagarri litzateke, halere, aipatzen dituzun horiek denak idazle diren ala ez. Nere ustez ez. Ez dago *hainbeste idazlerik* Ipar Euskal H&

rrian. Nere azterketez aparte, froga bat ekarriko dizut: Euskaltzaindiaren Bergarako Biltzar Nagusirako egin inkestetako bat gaurko idazleei zuzendua izan zen. Idazleen hautapen kontuan, Euskaltzandiaren Soziologi Batzordearen eritzian, erizpide oso zabalez, ahalik eta zabalenez jokatuta, 280 bat hartu ziren idazletzat denetara, eta horietatik 40 bat Iparraldekoak. Nekez jo dezakegu hortik gora.

Dena den, erizpideak gorabehera, eta besteak beste, ateratzen duzun ondorio pare bat oinatrian biziaturik dago.

1900-1936 urtealdi horretan, Iparraldean 13, Bizkaian 28 eta Gipuzkoan 51 idazle kontatzen ditut nik, nere erizpideen arabera. Iparraldekoak 60ra pasatzen dita zure kontuetan. Ongi da. Baina ez ondorio hau: «Bizkaiko 28 izenak eta Gipuzkoako 51k gainditzen ditugu». Konparaketa honek ez du zentzurik. Arrazoi sinple bategatik: Iparraldeko idazleen kopurua gehitu egin duzu zure kriterioen araberako idazleekin, baina Bizkaikoei eta Gipuzkoakoei ez diezu erantsi erizpide berarekin gehitu beharrekoak. Zure kriterio horrekin, zenbat «idazle» gehiago ez ote dago Bizkaian eta Gipuzkoan?

Aurrekoaren bizio bera du idazle/hiztun konparaketak ere. Zure idazle-kopuruarekin atera duzu Iparraldekoen idazle/hiztun erlazioa. Bego. Baina konparaketak ez du balio: erizpide beraren ondorioak ez bait dizkiezu gainerakoei aplikatu.

Laburzki esanda, zure idazle-erizpide hori oso eztabaidagarritzat jotzen dut, eta nik neuk azter-tresna bezala ez nuke onartuko. Kontrakorik demostratzen ez zaidan bitartean, nik erabilia egokiagoa iruditzen zait, eta Literaturaren Soziologian erabilia da, gainera. Baina batez ere ez da zilegi, ondorioak ateratzeko orduan, bi erizpide-mota nahastea, konparaketa eta portzentaiak oro faltseatzen bait ditu, kasu honetan ere gertatzen denez.

Joan Mari Torrealday

# JAKIN

# MARTXOKO HAUTESKUNDEAK EUSKAL HERRIAN

# MIKEL ZARATEREN BIZITZA ETA LANAK

Uztaila
Iraila

11

1979

**H. Marcuse hil da • CIEMEN-en IV. Ihardunaldiak eta dokumentua • Jokin Zaitegi hil zaigu • Gordailu eta euskal pedagogia • Gipuzkoako Zerbitzu Publikoen Estudioa**

JAKIN aldizkaria « Gral. Mola, 23 1.° esk. • Donostia • tel. 27 17 13

Urteko suskripzioa: 900 pta. Alea: 275 pta.